

guaiixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2020-03-06 OSTIHALA / 720. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE-ELIS TOKIKOM

Borroka feministara batzeko oihua

8M

muebles
ARKUPE
altzariak
Sakanako koltxol-denda

Tel. 948 563 753
Egubera, 19 - Altsasu
www.mueblesarkupe.com

BEHERAPENAK

479€

~~956€~~

CROMO
modelo

Normala 18" en 44 cm kotoa
Baxo 16" en 44 cm kotoa
135x190 cm



Sakanako mugimendu feministak igandean kalera ateratzera deitu du.

SAKANA

Sakanako mugimendu feministak "antolatu indarrak, batu borroka feministara" leloa aukeratu du aurtengo Martxoaren 8rako. Aurreko bi urteetan ez bezala, aurten ez da Greba Feminista deialdirik izanen. Mugimendutik adierazi dutenez, "azken bi urtetan mobilizatzeko eta antolatzeko gaitasuna erakutsi dugu, gizarte-mugimenduen beste borroka batzuetarako erreferente izan direnak". Gaztigatu dutenez, grebek milaka emakumeren inplikazioa bultzatu dute feminismo antolatuan, "eta grebaren kontzeptua bera zabaltzeko eta birdefinitzeko balio izan digu, orokorrean emakumeok egiten dugun soldatarik gabeko lan ikusezina hedatuz. Guztion artean gogoeta egiteko ere balio izan digute, baita indarrak metatu eta estrategia berriak pentsatzeko ere".

Mugimendu feministak kaleak betez adierazi nahi du "jendarte eredu hau bizi-gaitza dela pertsona gehienondako, batez ere

Igandean kaleak betetzeko deia

Sakanako mugimendu feministak igandean, 12:00etan, Altsasura deitu du: "beste urte batez Sakanako emakumezkoak eta Sakanako feministok indartsu eta gogotsu gaudela erakutsiko dugu"

emakumeondako, eta jasanezina planetarendako". Feministek nabarmendu dutenez, grebarik egin gabe ere "ahalegin eraldatzaile horretan jarraitzen dugu". Izan ere, Sakanako mugimendu feministarendako "greba feminista emakume langileak antolatzeko bitarteko bat gehiago da, ez da helburu bat, beste eredu sozial eta produktibo bat salatzeko eta aldarrikatzeko tresna bat baizik".

Antolaketa eta borroka

Emakumezkoen auto-antolaketaren beharra azpimarratu dute Sakanako mugimendu feministatik: "neoliberalismoak hain

"ANTOLATU INDARRAK, BATU BORROKA FEMINISTARA" DA AURTENGO LELOA

eragin handia duen mundu honetan, indibidualismoa sustatzen duen mundu honetan, komunitate feminista konprometitua eraiki behar dugu, sare sozialek eragiten duten pasibotasuna gaindituz. Kaleetan eta talde, kolektibo eta asanbladetako antolakuntza feministaren bidez ere presioa egin behar dugu".

Gaineratu dutenez, "berdintasun formalari" uko egiten diote eta ez dituzte nahi "ez mugarik gabe kon-

tsumitzeko edo pertsonak eta lurraldeak esplotatzeko berdintasunik ere, ez dugu munduko beste leku batzuetan eta gure inguruan emakumezko askoren esplotazioan sakontzen duten errezeta neoliberalik nahi". Horregatik, feministek "tokian toki jarduten dugu planeta osoko gure ahizpa feministekin konektatuta egoteak ematen digun ikuspegi globalarekin".

Igandean, beraz, "suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurre egingo dion, eta xenofobia gure sozializazioaren parte bihurtuz eskubideen zatiketa proposatzen duen arrazakeria instituzionala apurtzeko borrokatuko duen feminismoa aldarrikatuko dugu". Gaineratu dutenez, "gure feminismoak eredu zurrunean eta errealtatetik urrun itotzen gaituen gorputzen merkantilizazioa eta binarismoa borrokatzen ditu. Eta, azkenik, gaur eta beti, eskuin mutur zaharkitu, misogino eta homofoboari aurre egiten dion feminismo antifaxista defendatzen jarraituko dugu. Berriz ere errepikatuko dugu, aurrean izango gaituzte, ez dira pasako!"



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE



Gurutze Arregi.

"Gaur egun gertatzen dena urrutitik heldu da"

"Microfísica sexista del poder" liburuaren aurkezpena astelehenean, 18:30ean, Gure Etxean

ALTSASU

Nerea Barjola Ramosen berri eman digu Gurutze Arregik. **Alcasser kasuak emakumezkoengan ondorioak izan zituen, ezta?** Latzak. 70 bat egunez nesken gorpuak ez zituzten opatu. Denbora horretan telebistek aprobe txatu zuten herritarrek, gurasoak, lagunak eta abar informazioa ematera konprometitzeko. Egunero telebistan ateratzen ziren. Halako portaera ikusten zen aurreneko aldia izan zen. Nazkagarria, oso-oso gogorra izan zen. Barjolak tesia egin zuen telebistek eta hedabideek Alcasser kasua nola tratatu zuten aztertuz, eta nola hortik aurrera jarraitzen duten jarrera berarekin. Tesiaren ondoren argitaratu zen liburua.

Azpitiitulan sexu-terrorea aipatzen da. Sakanara iritsi zen?

Bai. Neskei esaten diete prebentzioa izateko. Mezu hori bidaltzen dizute: zuk zaindu behar duzu, zuk ez duzu etxetik atera behar, zuk ezin duzu auto-stopik egin eta halakoak.

Zergatik gonbidatu duzue Barjola?

Ikasi behar dugu nondik heldu diren bidaltzen dizkiguten mezuak. Gaur egun gertatzen dena ez da gaur egun sortu den gauza bat, baizik eta urrutitik heldu da. Patriarkatua da.

M8 egitaraua

OSTIRALA 6

17:00 Emakumearen egunaren historia. Pili Mikeorekin kafe tertulia. Etxeberrin. Arakilgo Udala antolatuta.

18:30 *Influen[zer]? 1* tailerra. Sexting eta maite-historia motak (Instagram). Ianire Estebanez (Mi novio me controla... lo normal). Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udala.

19:00 *Cholitas* dokumentala, Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.

Boliviako emakume indigena batzuk Aconcagua (Amerikako mendirik altuena) igotzen saiatuko dira.

20:00 Pintxo-pote feminista, Urdiaingo plazan.

20:30 Maite Redinen *Fotos, hormonas y lexatin* antzezlan, Irurtzongo kultur etxean. 27. Emakumeari buruzko Jardunaldiak.

LARUNBATA 7

09:00 Gosaria. Lizarragako elkarteak.

10:00 *Komunikazioa, emozioak, nolako heziketa jaso dugu emakume bezala, nolako eragina du gure bizitzan?* Olatz Berastegik gidatuko du hitzaldi-tailerra. Lizarragako eskolen eraikinean.

12:00 Meditazio saioa (esterilla, manta eta arropa erosoa eramane). Garbiñe Elizalde. Lizarragako eskolen eraikinean.

13:30 Bazkaria. Lizarragako elkarteak.

17:00 Dantza entsegu. Uharte Arakilgo alondegian.

18:00 *Genero problematika gaiditzeko zenbait apunte*. Irurtzongo kultur etxean. Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanblada.

18:00 Marian Santamaria ipuin kontalaria. Ondoren, *La vida empieza hoy* filma. Lizarragako eskolen eraikinean.

18:30 Sorgin dantza. Ondoren, sorgin-afaie, zurrapapotea eta

auzatea (edallontzia etxetik eramane). Uharte Arakilgo plazan. 18:30 Pankarta morea. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udala.

18:30 *Zergatik hitz egiten dugu genero-berdintasunaz?* Zalantzak eta kontzeptuak argitzen tailerra. Olatzagutiko gaztetxokoan. Olatzagutiko Udala.

19:00 Dorleta Kortazar Alkozen 80 amandre helduendako ipuin saioa, Arruazuko udaletxean.

21:30 Emakumeen afaria. Arbizuko Alda-bide elkarteak. Bilgune Feministak antolatuta.

22:00 Afaria eta Lorena Arangoaren emanaldia, Irurtzongo eskolako jantokian. 27. Emakumeari buruzko Jardunaldiak.

IGANDEA 8

10:00 Gosaria, Urdiaingo plazan.

11:00 Urdiaini buelta.

11:30-14:30 Txoko-lila, haur eta familiendako, Etxarri Aranatzan. Etxarri Aranazko Udala.

12:00 *Antolatu indarrak, batu borroka feministara* leloa duen manifestazioa Foru plazatik abiatuko da. IAGA eta Irurtzongo emakume taldea. Ondoren, bazkari autogestionatua karpan.

12:00 *Antolatu indarrak, batu borroka feministara* leloa duen manifestazioa, Altsasuko Foru plazatik. Sakanako mugimendu feminista.

13:00 Kontzentrazioa. Etxarri Aranazko plaza.

13:30 Bakaikuko emakumezkoen talde argazkia. Ondoren bazkaria izanen da. Izen ematea estankoean, Koxkon, Bakarrekotxea elkarteak, jubilatutako emakumezkoen taldeak.

14:30 Emakumezkoen bazkaria, Urdiainen. Izen ematea gaurko pintxo-pote feministan.

15:00 Bazkaria. Olatzagutiko Kamiogaina jubilatutako emakumezkoen taldeak.

16:30 Iruñeko manifestaziora (18:00etan, Antoniutti) joateko hitzordua, Irurtzongo karpan.

17:00 Ainhoa Legez Kanpo, musika emanaldia. Olatzagutiko Kamiogaina jubilatutako emakumezkoen taldeak.

18:00 Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen *Erradikalak ginen* antzezlan. Arbizuko udaletxean. Bilgune feminista.

18:30 Pankarta morea. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udala.

19:00 Kontzentrazioa. Olatzagutiko

Intsumisio plazan. Olatzagutiko Udala.

ASTEAZKENA 11

18:00 Zinemara ateraldia, Irurtzongo plazan.

OSTIRALA 13

18:30 *Influen[zer]? 2* tailerra.

Publizitatea eta edertasuna ereduak. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udala.

19:00 *Harremanen inguruan hausnartzen* tailerra. Irurtzongo kultur etxean. Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanblada.

22:30 Tdiferentzia taldearen *Perdiendo el juicio* antzezlan, Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.

ASTELEHENA 9

18:30 Nerea Barjola Marcosen *Microfísica sexista del poder: el Caso Alcasser y la construcción del terror sexual* (2018, Virus) liburuaren aurkezpena. Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Altsasuko mugimendu feminista.

IGANDEA 15

12:00 Sakanako VII. Lilasterketa, Altsasuko Foru plazan. Altsasuko Udala eta Mank-ek antolatuta.

17:00 *Meri, Mari eta Lari* antzezlan Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.

ASTEARTEA 17

19:00 Errotik, Sakana parekidea; Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren aurkezpena. Mank-en Lakuntzako egoitzan.

OSTEGUNA 26

17:30-19:30 Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz tailerra. Hiriberriko kontzeju etxean.

Taldeko esperientziak eta norberaren esperientziak partekatze emakumezkoen topaketa da. Bizipen-esperientzien bidez, mugimendu askeko proposamenak, talde dinamikak, gorputz eta dinamika plastikoak landuko dituzte, nork bere burua ezagutzeko eta besteak entzunez. Emozioen azpian dauden beharrak aztertze emakumezkoen artean duen helburua.

da "gure buruari une bat eskaintzea. Gelditzeko eta ez egiteko aukera emanez, sormenaren bidez geure burua begiratzeko eta ibiltzeko modu berriak sortzen uzteko".

Emakumezko helduei zuzendutako tailerra June Urtasunek emanen du (gaztelaniaz), dantza integral sortzailean espezialista, pedagoga terapeutikoa. Izen ematea martxoaren 18 baino lehen egin behar da berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan.

LARUNBATA 28

10:00-14:00 Autodefentsa feminista tailerra. Sutezin. 16 urtetik gorako emakumezkoek zuzenduta. Gutxienez 8 parte-hartzaile behar dira, gehienez 20. Izen ematea martxoaren 20ra arte, udaletxean edo olazti@olazti.com e-postara idatziz. Olatzagutiko Udala. 18:00 Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen Birritan borbaxua antzezlan, Ihabarren. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua.

OSTEGUNA 2


17:30-19:30 Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz tailerra. Hiriberriko kontzeju etxean. Ikus martxoaren 26a.

ASTEAZKENA 22

Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz. Emakume gazteak. Izen ematea apirilaren 8 baino lehen egin behar da berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian jarriko dute.

ASTEAZKENA 29

Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz. Emakume gazteak. Izen ematea apirilaren 8 baino lehen egin behar da berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan. +www.guaixe.eus



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Elkarteak: elkar hartu

Gure inguruan elkarteek badute tradizioa eta ohituak gaude herrietako elkarteetan biltzen bazkaltzeko, afaltzeko eta beste zenbait kontutarako. Elkarteak bazkideen kuota eta lanarekin sostengatzen dira eta onartu dituzten arauen bidez gobernatzeko dira, baina arau horiez gain, bazkideen arteko konfiantza giroa beharrezkoa da elkartearen funtzionamendu egokirako, alegia ere, elkartekideok oinarri-oinarrrian elkarrekin fidatzen garela onartzen dugu. Eta hor sortzen zaizkigu batzuetan galderak eta zalantzak.

Bazkideoi dagokigu elkartearen kudeatzea zuzendaritza taldean gaudenean eta elkarte bakoitzaren arauen arabera egiten da aukeraketa. Dena dela, ardura horietatik bazkide guztiok pasatzea bide aproposa da, azken finean lan horien ardura guztiok erraz bete dezakegulako eta lanak ongi banatuz gero, ardura eta lan eramangarriak direlako.

Halere, oraingoan, tarte hau aprobetxatu nahi dut herri txiki-txiki-txiki elkarteek betetzen duten hutsuneetako bat aldarrikatzeko. Sarritan, modu batera edo bestera herriarrendako zerbitzuak eskaintzen dituztelako musutruk eta

BAZKIDEEN ARTEKO KONFIANTZA GIROA BEHARREZKOA DA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU EGOKIRAKO

eskuzabaltasunez, esaterako, lokala erabiltzeko aukera behar izanez gero, festetan kuadrilarekin elkartzeko, familia bazkariak egiteko, haurren urtebetetzeak ospatzeko edota beste batzuk. Hortaz, herriarrendako bilgune ere bihurtzen dira.

Batzuen ustez, elkartekide izatea zama da, arazoak edo

kudeaketa lanak tartean egon daitezkeelako. Bai, izan daiteke. Baina niretako, elkartearen kultura mantentzea balore bat da, gorde beharrek balorea. Gure aurreko bazkideek eginda utzi diguten elkarte bat jaso dugun balorea da, guk ondorengoei uzteko modukoa. Bazkide ez diren baina zenbaitetan erabiltzaile direnei ematen zaien balorea ere bada bazkideen eskuzabaltasunari esker egiten dena.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Martxoaren 8a, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, Sakanako udal guztien adierazpena, 2020

SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ETA ALTSASUKO UDALAREN BERTINTASUN ARLOAK

Azken urteotan martxoaren 8a egun apoteosikoa izan da zalantzarik gabe. Sekulakoa. Emakumeok planto eginez gero mundua gelditu egiten dela erakutsi dugu. Baina hau guztia ez da ezerezetik sortu; euren eskubideen alde emakumeek urte luzeetan eginiko borrokaren ondorioa da. Ikasi dugu, gaurko borrokak berriak izan beharrean, aspaldikoak direla.

Hain zuzen ere, orain 25 urte finkatu zuen Beijingo Ekintza Plataformak inoiz lortzen ez dugun berdintasunera iristeko bide-orria; erronka berriak ditugu aurre egiteko, tinko eustera behartzen gaituztenak emakumeen eskubideak eta

askatasunak mugatzeko mehatxu ororen aurrean (...). Gaur egun Mugimendu Feministak eta berdintasunaren aldeko politika publikoek erabiltzen dituzten kontzeptuak zalantzan eta kolokan jartzea oztopo dira berdintasunaren oinarritzko eskubidea erdiesteko bidean (...). Horregatik igandean, Martxoak 8, geldidune bat egin nahi dugu gure ibilbidean, orain arte egindako bideak ikasi eta aintzatesteko, gure aurretik izan direnen esperientzia gure atzetik datozenen gogo biziarekin jarraitzeko.

Izan zirelako izanen gara! (...) Horregatik guztiagatik, toki-erakunde garen aldetik,

HONAKO KONPROMISO

HAUEK adierazi nahi ditugu:

- Tokian-tokian lidergo argia eta konpromiso sendoa hartzea gizon-emakumeen arteko berdintasunaren giza-eskubidearen alde.
- Begirada berri bat bermatzea politika publikoetan berdintasun printzipioa txertatzea ahalbidetzeko.
- Gure udalerrietako emakumeen errealitate zehatzak ikusarazten eta egun indarrean jarraitzen duten desberdintasun adierazpen guztiei dagokien neurria ematen jarraitzea.
- Mugimendu feministari laguntzea bere borroka eta eskaeretan.
- Aintzat hartzea genero-berdintasuna justizia sozialaren eta giza-eskubideen ikuspegi partekatua dela. Gizon-emakume guztiok dugu zer bait egiteko erantzukizuna, baina batik bat gobernu eta administrazioek, eurak baitira eskubideen bermearren erantzule nagusiak.

GUTUNA

Herri-ihotearen azken notak

ANNE MORENO, AINARA SALGADO GOMEZ, JONE RUBIO, NAROA DÍAZ, AINARA SALGADO GALAN, LEIRE MAZKIARAN, AMAIA VIANA, IDOIA MORENO, GIZANE VIEDMA, ANDREA JIMENEZ, AMAIA ABUZIDE, AINHOA SANTANO, MIRENA CRISTOBAL, ANNE CLAVER, MAITANE CALLEIRAS ETA ERKUDEN ROA.

Inauteriak, antzinatek, egunerokotasunetik aldentzeko eta bertan arrakalak irekitzeko bidea izan dira, natura eta gizarte

nekazariekin lotura zuzena zutena. Bada, gizartearen garatu ahala horrek pairatu izan dituen eraldaketak ulergarriak dira, baina ezin da ahaztu barrutik bizitzen den festa dela.

Altsasuko ihoteek duten proiektzioa ukaezina da, eta harro gaude horretaz. Alabaina, bat-batekotasunaren eta kaosaren aldarri izateari utzi dion antzerki kontrolatu bihurtu den sentsazioa dugu askok; txikitatik ihoteetan izandako bizipenetatik aldentzen.

Azken urteotan publikoaren presentzia amaigabeak, eta

publiko hori asetzeko eman den espektakularizazioak ihoteak izan lezakeen jatorrizko esentzia urratu duela ematen du, hein batean. Egun, nahiz eta herri askotan inauteriak ospatu, badirudi publikoarekiko erakargarritasunaren sustatzea bideratzen dela soilik. Herriarrendaren partaidetza uztartzetik aldentzen da festa, zenbaitetan partaideak berak publiko bihurtzen baitira. Inauteriak dakarten errealitatearen haustea desagertzen da orduan, festa erakargarri turistiko huts bihurtuz.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Ebeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia
Garbiñe Petriati Ijurrea

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK





Makina bat olaztiarrek bat egin zuten Euskaraldiarekin 2018an. ARTXIBOA

Euskaraldia ibarrean barna saretzen hasia

Asteazkenean, 19:30ean, Mank-en Lakuntzako egoitzan herri batzordeen koordinazio bilera egingen da

SAKANA

Euskararen erabilera sustatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Aurten bigarren edizioa izanen du ariketa kolektibo horrek, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen dena. Sakanako 13 herri eman dute izena dagoeneko Euskaraldian, eta herri batzordeak ere sortu dituzte. Horietako herri batzorde batzuk lanean hasi dira eta lehentasunak adostu dituzte. Beste batzuk hasiak dira.

Asteazkeneko bileraren helburua da ibarreko Euskaraldiko herri batzorde guztiak elkartzea, elkarren berri ematea eta Saka-

na mailan koordinatzea. Horretaz aparte, ariketa sozialak aurtten berritasuna dakar berarekin: ariguneak. Uneoro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten espazioak dira ariguneak eta, besteak beste, izan daitezke erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kultur edota kirol elkarteak. Herri batzorde bakoitzak erabakiko du zein arigune landu bere herrian. Baina badira ibar guztian eragiten duten batzuk. Guztien artean Sakanako lehentasunezko ariguneak identifikatzea proposatuko da.a

Hautetsiendako hizkuntza-normalizaziorako tresnak

Alkate, zinegotzi eta Euskara Batzordeetako kideendako prestakuntza-saioa 25ean, 17:00etatik 19:00etara



SAKANA

Legegintzaldi berria joan den urtean hasi zen eta harekin batera 14 alkatek eta 100 zinegotzik hartu zuten kargua (Iturmendiko Udala falta da). 114 udal hautetsi horiek beraien lanerako hizkuntza-normalizazioaren inguruko tresnak izan ditzaten prestakuntza-saioa antolatu dute. Beraiei eta herrietako Euskara Batzordeei zuzenduta.

Saioan, aurrena, soziolinguistika arloko oinarritzko kontzeptuak ezagutaraziko dizkiete, besteak beste, hizkuntza politika

eta hizkuntza plangintza zer diren ulertu eta bereiztea. Horrekin batera, Euskara Zerbitzuen funtzioak diren ezagutaraziko dizkiete. Eta, bukatzeko, araudiari buruzko oinarritzko informazioa eskuratuko dute hautetsiek. Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sareak antolatutako prestakuntza-saio hori Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan izanen da, martxoaren 25ean 17:00etatik 19:00etara. Izena ematea martxoaren 20a baino lehen egin behar da euskara@sakana-mank.eus helbidean.

MARTXOAK 27
**ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA**



PARTE HARTZEKO:
948 564 275 | publi@guaixe.eus

*Publizitatea kontratatzeko azken eguna martxoaren 13a



OLATZAGUTIA



HIRIBERRI ARAKIL - UTZITAKOA

Azken mozorroak

Azken ihote-asteburua ospatu zuten Hiriberri, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiak



ZIORDIA - UTZITAKOA



ALTSASU



ZIORDIA - UTZITAKOA



ALTSASU



ALTSASU



OLATZAGUTIA

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Zer egiten duzu zuk
berdintasunagatik?

Batu zaitez

#Martxoak8

Instituto
Navarro
para la Igualdad



25. Aniversario - 1995 - 2020

Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Hamargarren parte-hartze aurrekontuak

Irurtzundarrek larunbatetik hilaren 15era arte dute aukera proposatutako lau proiektuen artean gogokoenaren alde botoa emateko. Aukeratutako proiektua gauzatzera udalak 35.000 euro bideratuko ditu

IRURTZUN

Dagoeneko Irurtzongo etxe guztietara iritsi da parte-hartze aurrekontuen berri ematen duen esku-orria. Eta harekin batera botoa emateko orria ere. Tahona, Ana Mutiloa farmazia, Martirena-Gastearena farmazia, Lorena fruta-denda, Erosle, udaletxea, jubilatuen elkarte edo Pikuxarren dauden kutxetan jaso dira irurtzundarren botoak. Baina e-posta erabiltzeko aukera ere badago, preparirurtzun@gmail.com helbidea hain zuzen ere. Herritarrek aukeratutako proiektua gauzatu du udalak.

Irurtzongo Aurrekontu Parte-hartzaileen herritar taldea aza-

roan abiarazi zuen hamargarren edizioa. 2019an jasotako proposamen eta iradokizunetan oinarrituz, aurre-aukeraketa egin

zen eta, azkenik, irurtzundarrei lau proiektu aurkeztu dizkiete, "interesgarrienaren edo beharrezkoenaren aukeratu" dezaten.



Irurtzongo Itxesia udal igerilekuak. IRURTZUN.EUS

Taldekiek zenbaketa egin ondoren boto gehien lortzen duen proiektua udalari aurkeztuko diote, aurrekontuetan sar dezan.

Ekarpenak egiteko aukera

Irurtzundarrek etxean jasotako bozketa-orrien beheko partean proposamenak egiteko aukera eskaintzen duen espazio bat dago. Talde sustatzailearen nahia litzateke botoa emateaz aparte, atal hori ere bete ikustea. "Nork bere kalean edo auzoan dituen gabeziak adieraztea, edo proposamenak egiteko, nahiz eta garrantzi txikiagokoak izan". Taldekideek jasotako berri udalari ematen diote. "Joan den urtean 41 eskaera edo iradokizun egin ziren, horietako gehienak hurrengo hilabetetan burututa, kostu ekonomiko txikia zutelako edo berehala bideragarriak zirelako". Horregatik, proposamenak egitera gonbidatu dituzten irurtzundarrak. Baita heldu den urteko parte-hartze aurrekontuetarako proposamenak egitera ere. Zehaztu dutenez, "komenigarria da bideragarritasun minimo bat izatea, eta ahalik eta zehatzen izan daitezen".

Balkoiak eta terrazak ixteko ordenantzaren kontsulta aldia

Onartu aurretik iritziak eta iradokizunak altsasu@altsasu.net e-postara bidali daitezke, hilaren 22ra arte

ALTSASU

Altsasuko Udalak, hirigintza aldetik, etxebizitzetako balkoien eta terrazen itxiera arautzeko ordenantza onartuko du. Altsasuarren iritzia jasotzeko hiru asteko epea zabaldu du udalak. www.altsasu.eus web orrian kontsultatu dezakete ordenantzaren zirriborroa. Araudi proposamen jaso dagoenaren arabera egingarritzat joko diren lanak lirateke: fatxadatik metro bat baino gehiagoko ateratzen ez den balkoiak itxtea, fatxadatik barrura sartuta dauden espazioak itxtea, fatxadatik kanpora metro bat baino gehiago ateratzen diren terrazak itxtea, atikoko terrazak itxtea eta behe solairu gaineko terraza itxtea.

Zirriborroak arauditik kanpo utzi ditu babes ekonomiaren araubideren bati lotutako etxebizitzak, babes arkitektonikoren bat duten etxebizitzak eta Alde Zaharreko balkoi eta terrazak, begiratokiak egitea saihesteko, halakoak 2003tik debekatuta baitaude. Gainera, zirriborroak ez du baimentzen itxitako terraza edo balkoia etxebizitzari eranstea, hau da, etxebizitzaren banaketa aldatzea eta itxitura etxeko gela baten parte gisa hartzea. Udalak orain arte ez du halakorik baimendu eta bide beretik segitu nahi luke. Bestela, etxebizitzaren hirigintzako aprobetxamendua modu aipagarrian handituko litzatekeelako.

Jaso da obra lizentzia eskatu beharko dela eta itxiturek etxebizitzaren eta inguruko estetikaldintza berak izan beharko dituztela. Itxiturak arina izan beharko du, alde kristalduna nagusituko zaio alde kristal gabeari. Eta guztiz debekatuko du fabrikako itxiturak egitea.

Udala etxebizitzaren energia eraginkortasun sustatzen ari denez, hori bulkatzen duen jarduketak sustatzea erabaki du.

Lau proiektuak



Irurtzun atseginago egitea
Irurtzun atseginagoa, berdeagoa, erosoagoa eta oinezkoendako erabilgarriagoa lortzea. Zehazki, ibilgailuek espaloiak errespetatzea izanen du helburu, loreontzi, zutoi, eskudel eta beste hainbat elementu apaingarri jarrita. Horrekin batera, kaleetan dauden bidegurutzak batzuetan espaloia eraikiko da errepideraino, oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Gainera, proiektuak herrian autoa gutxiago erabiltzeko beharraz kontzientziaztea landuko du. Eta aurrekoa osagarri, herrian barna hainbat mural apaingarri egingen dira.



Barraketako esparrua asfaltatu edo hormigoitu
Azken urteetan herriko festetan barrakak jartzen diren espazio irekiko zoru zati batzuk asfaltatuak daude eta beste batzuetan hormigoi geruza bat dago eta gainerakoan hartxintarra. Proposatzen dena da zorua berdintzea eta hobetzea. Horrela, aurrera begira, espazio hori erabili ahalko litzateke aparkaleku gisa, festetako barrakak jartzen segitzeko edo espazio irekietarako egokiak liratekeen beste zenbait erabilerarako.



Atakondoako patioan umeendako parkea
Patioa, jolastokia izateaz aparte, hezkuntza espazioa da eskolarako eta aisialdi gunea herri osorako. Ikasturte hasieratik eskolako patioak bi zabu zahar besterik ez ditu Haur Hezkuntzako 102 ikaslerendako eta, praktikan, herriak parke bat galdu duela esan daiteke. Eskolaren eta herriaren eremu hori berreskuratzeko parke berri bat egitea proposatu da, erabilgarritasun eta segurtasun irizpide jakin batzuen arabera pentsaturik.



Toilekan eta txakurrendako guneak
Proiektuak bi ekintza ditu oinarri: toilekana erabiltzeko kontzientzia zabaltzea eta txakurrek jolasteko guneak egokitzea. Aurreneko kasuan, toilekanak erabiltzeko kanpaina egingen litzateke. Izan ere, prest daude txakurren gorotzak biltzeko puntu horiek. Bigarren jardunbidea litzateke estali gabeko txakurrendako jolasguneak itxiak egokitzea, beste herri batzuetan dauden bezala. Kokaguneak izan litezke: Plazaola ingurua, industrialdea eta igerilekuan baina zehaztu gabe oraindik.

Kontzejuaren gastuak estaltzeko aurrekontua

Urritzolarrek lan asko auzolanean egiten dituzte. Azkenetakoa LED argiak jartzea, horrela argindar faktura erdira murriztea lortu dute. Etxarrengo industrialdea zabaltzen denean trafiko hazkundea izanen ote den kezka dute

URRITZOLA

Urritzolako Kontzejuak aurtan 7.748,44 euroko diru-sarrerak eta 4.415 euroko gastuak izanen ditu. 3.333,44 euroko alde diru-zaintzako poltsan geldituko dira. Izan ere, gastuak betikoak ditu kontzejuak: herri-argiteria, festak, kontzeju-etxea eta elkarteak den eraikinaren mantentzea eta gutxi gehiago. Hala azaldu digu kontzejuko presidente Fermin Mariñelarena Iraizozek. "Aurrekontuetan soilik ohiko gastuak sartzen ditugu. Gero gertatu daiteke joan den urtean bezala erabilera askeko dirulaguntza ematen digutela eta inbertsioren bat egin dezakegula".



Urritzola Ergatik. Aurtan festak garagartzaroaren 27an ospatuko dituzte. ARTXIBOA

Horrela, jarri zituzten babes-hesiak Etxarrenerako bide bazterrean eta konpondu zuten Izurdiagara eramaten duen bideko Arakil gaineko zubia 2019an. "Lanek 23.000 euroko aurrekontua zuten eta laguntza 20.545ekoa zen". Halako beste laguntzaren bat jasoz gero Izurdiagarako bidean dagoen Larraun gaineko zubia konpondu nahiko luke Urritzolako Kontzejuak. Bestetik, 25 erreguko edo 22.500 metro karratu inguruko lur-sail bat badu bi ibaiak elkartzen diren tokian. "Izurdiagako txipuditik du sarbidea zubi batekin eta hura ere konpontzeko dugu". Azken horren aurrekontua txikiagoa litzateke, 1.500 bat euro. Halako kopuru bat jaso zuen joan den urtean kontzejuak udalak egin-dako banaketatik.

Auzolanak

Arakilgo Udalak udan kontratatuko langileek lan txiki ugari egin izan dituzte ibarreko herrietan. Krisi garaian jendea erraz kontratatzen zuen udalak, baina azken deialdietan langileak lortzeko zailtasunak izaten ari da udala. Kontzejuetan horren

jakitun dira, horregatik, Mariñelarenak esan digu "agian auzolan gehiago egin beharko ditugu".

Azkenetakoa bat herriko 12 bat faroletako bonbillak LED argien-gatik ordezkatzeko egin zuten igande goiz batez. "LED bakoitzak ez zituen 15 euro ere balioko. Eta argindar faktura erdira jaitsi da". Aurreikusita dute baso itxitura bat berritzea. "Elkartarako egurra behar bada edo beste zerbait egin behar bada lanerako daudenak deituko ditugu. Bestela, batzuk hizketatu eta egiten dugu". Hilerrria horrela garbitu zuten. Hala ere, Mariñelarenak aitortu digu auzolanak egiteko jende gutxi daudela, 55 urtetik gorakoak gehienak.

Bestetik, Etxarreneren egiten ari diren industrialdeak momentuz ez dute trafiko igoerarik eragin. "Fabrika zabaltzean ea zer gertatzen den". Herri sarre-rarekin du kezka kontzeju-buruak: "Etxarrenerdik heldu diren ibilgailuek aldapa ziztu bizian igoko dute eta gerta liteke Urritzolatik ateratzen den batekin topo egitea..." Gaztigatu duenez, txirrindulari asko pasatzen dira ere.

Satrustegin Kontzejuaren etxe bat alokatzeko dago

Satrustegiko Kontzejuak Maistraren Etxea deitutako alokatu egin nahi du. Horretarako, gutun-azal itxien bidezko prozedura baliatuz, enkante publikoa antolatuko du. Interesatuak eskaintzak asteazkenera arte egin ditzakete. Eskaintzak heldu den ostiralean zabalduko dituzte. Alokatzegatik Satrustegiko Kontzejuak hileko, gutxienez, 365 euro eskatu ditu.

Uharteko Udalak segurtasunagatik Araquisa itxi du

Geltoki kalean dago, pasako toki, etxez inguratuta. Araquisa azken krisiarekin itxi zituen ateak eta lantegia banku baten eskura pasa zen. Ordutik pabioiak utziak daude. Baina segurtasuna bermatuta ez zegoenez, udalak jabeari hura ixteko eskatu zion. Erantzunik jaso ez duenez, subsidiarioki egin du eta bankuari faktura pasako dio.

Sakanako Mankomunitateak kirol monitoreak kontratatu nahi ditu bere jardueretarako:

1. Musikoterapia ikastaroa (kirol egokitua)
2. Igeriketa eta soinketa ikastaroa (kirol egokitua)
3. Emakumeen atletismo eskola
4. Aizkora eskola
5. Triatloi campusa
6. Futbol campusa
7. Errugbi campusa
8. Eskalada ikastaroa

Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 23an bukatuko da 14:00etan. Eskaera Enplegu bulegoan edo Sakanako Mankomunitateko erregistroan egin. Deialdien oinarriak ikusteko www.sakana-mank.eus



Maiatzaren 9an eguraldiak ez badu laguntzen ekimena bertan behera geldituko da UTZITAKOA

Beriainen, maiatzaren 9an, larunbatarekin

Burujabetza eta askatasun nahia adierazteko Berian mendia argiztatuko dute. Sakanako mendizale talde batek sustatu du ekimena, Gure Eskuren laguntza duena. Agendan data gordetzeko eskaera egin dute

SAKANA Katalunian lehenik eta Euskal Herrian ondoren, udazkenean hainbat mendi argiztatu zituzten mendizaleek. Kataluniako buruzagi sozial eta politikoak 2017ko lastailaren 1eko erreferendumagatik zigortu zituen epaia salatzeko modu ikusgarria izan zen. Sakanako mendizale batzuk

ibarrean halako ekimena egiteko nahia adierazi zuten. Baina udazkenerako eguraldi txarra aurreikusten zuten, udaberri- ra atzeratu zuten. Beriain argitzea helburu duten herri ekimen horretako kideek Gure Eskurengana jo zuten, antolakuntzan duen eskarmentuagatik, eta laguntzea erabaki zuen.

Mendizale sakandarrek Beriain mendia (1.494 metro) maiatzaren 9an argiztatuz "herri edo komunitate gisa burujabetza eta askatasun nahia" adierazi nahi dute. Gaineratu dutenez, "sinbolikoki argia piztuz nork bere burua burujabetzaren eta askatasunaren alde aktibatzen du. Argia piztea burujabetzarekin eta askatasu-

narekin konpromisoa erakusteko modua izanen da. Zenbat eta argi gehiago piztu urrutiago iritsiko gara". Eta nabarmendu dute mendian egingen dela, "askatasun eremuan". Antolatzaileek gaineratu dutenez, Beriain mendia maiatzaren 9an argiztatzea elkartasun ekitaldia eta natura zaintzeko konpromisoaren erakustaldia ere izanen da.

Beriain mendiaren argiztatzearekin bat egingen du Gure Eskuk eta beste hainbat eragilek sustatuko duten "erreferendumaren aldeko herri ekimena" deituriko egitasmoarekin. Hark "burujabe izateko eta mugarik gabe erabakitzeke gehiengoaren nahia" erakutsi nahi du.

Orain artekoa

Mendizaleek Beriain argiztatze-ko ideia udaberrira atzeratzea erabaki zuten lastailan. Ordutik guztia behar bezala prestatzen ari dira. Argiztatuko den bidea Unanuko igoera izanen da, zehazki, Iturtxiki gaineko pagaditik gorako bide guztia. Bidea lau zatitan banatu dute: Elorriagoako arrasotik Aldaiko Belazdira, Aldaiko Belazditik Beriain gainera eta, gora igota, bi adar zabalduko dira, bata Beriainpuntarantz eta bestea ermitarantz.

Gutxieneko mendizaletasuna duen edozein sakandarrek parte har dezake ekimenan. Dagoeneko izena eman daiteke. Aste Santurako nahi dute izen ematea egina egotea, antolakuntzari

buruzko azalpenak eman, Unanura joateko erak, aparkalekuak, bakoitzaren kokapena, ordutegiak, ardurak eta bestelakoak argi eta garaiz jakinarazteko.

Herri bakoitzeko arduradun bat izendatu dute eta hari eman beharko zaio izena. Bidearen zati bakoitzak ere bere arduraduna eta haren laguntzaileak izanen dituzte. Horrela, guztia behar bezala antolatu nahi dute. Gainera, mendi bidearen zati bakoitzaren ezaugarrien eta zailtasunaren arabera, izena eman duten mendizale trebatuak eta publiko orokorra batean edo bestean kokatuko dituzte. Ahalik eta arrisku gehien saihestea baita asmoa. Mendi gainera igo beharko dutenek lehenago abiatu beharko dute, ondoren besteak.

Antolatzaileen asmoa da 50 bat metroko argi bat piztea. Beriain argiztatuaren argazkiak egiteko zazpi puntu aurreikusi dituzte. Eta dagoeneko lotu dituzte argazkilariak. Behin argazkiak eginda herri ekimeneko antolatzaileen nahia da parte-hartzaile guztiak Beriainetik jaitea. Horregatik, bukaerarako halako ospakizun edo ekitaldia prestatu dute.

PARTE HARTU NAHI DUENAK ASTE SANTURAKO IZENA EMAN BEHAR DU BERE HERRIAN

DUELA 25 URTE...

Nahi ta Nahiezen lehen diskoa



Aurretik bi maketa argitaratu ondoren etorri zen *Plazaolaren martxa* izenburuko diskoa. Hainbat estilotako hamar kantu bildu zituzten lan horretan, tartean aparteko arrakasta lortuko zuen Itoiz taldearen *Lau teilatu* kantuen reggae bertsioa. Taldea boskote batek osatzen zuen eta haien artean zegoen Xabi Lizarra-

ga baxu-jole irurtzundarra. 1998an eman zuen Nahi ta Nahiezek hirugarren eta azken lana. Banatu ondoren bi taldekidek, Gorka Urbizuk eta Aitor Goikoetxeak, Berri Txarrak izeneko taldea sortuko zuten.

Espainiak terrorismo delituaz egiten duen aplikazioaz European

Lau eurodiputatu Didier Reyniers Europako Justizia komisarioari gutuna bidali zioten ostiralean. Eta eskatu diote "ahalik eta lasterren" berrius dezala Espainia terrorismoaren aurka borrokari buruzko 2017/54 zuzentaraua nola aplikatzen ari den, uste baitute estatu horrek bere transposizioarekin "ia mugarik gabe" zabaldu duela terrorismo-mota penala, terrorismoa ez den egoeratarazabalduz. Sinatzaileen iritziz "anbiguo eta zehaztugabea" da, eta "salaketa arbitrario batzuk eragin ditzake". Gutunean Altsasuko edo Nines Maestoren (Palestinaren alde egiteagatik terrorismoa leporatzen diote) kasuak aipatu dituzte.

UPN zuzendaritza berritzeko prozesuan sartuta dago

UPNk bere 12. kongresua hilaren 29an egingen du Iruñeko Baluarte aretoan. Alderdia zuzentzeko bi hautagaitza aurkeztu dira. Alde batetik, egungo presidente Javier Esparza eta, bestetik, Sergio Sayas diputatua. Azken horrek bere hautagaitza larunbatean aurkeztu zuen. Sayas babesten dutenen artean dago Lourdes Goikoetxea Zubelzu olaztiarra, Yolanda Barcina Angulok kontseilari gisa fitxatu zuena eta Nafarroako Gobernuaren lehendakari-orde bukatu zuena. Sayasek esan duenez, bere hautagaitzak talderik "onena" du. "Babestuta, ilusionatuta eta prestatuta nago gure alderdiak behar duen lidergo aldaketa irudikatzeke".

Etxarri Aranazko kanpineko jatetxea mustu dute

Hospium 10 eta Del Campo a la Parrilla enpresek jatetxe proiektu berria jarri dute martxan Etxarri Aranazko kanpinean, joan den asteko ostegunean aurkeztu zutena. Carlos Torres sukaldariak prestatu duen kartan, abangoardiako ukituak dituen sukaldaritza tradizionala du, eta bertan ez dira faltako "berezko haragia duten platerak". Torres talde berria osatzeaz arduratu da, eta azaldu duenez, "karta egokitu egin da gune gastronomiko berri honetara hurbiltzen diren mahaikide guztiek brasen egindako haragi-plater bikaina dastatzeko aukera izan dezaten". Marta Garcia Aranaz zuzentzen du jatetxea.



Udal ordezkariak itunaren jarraipen bileran. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Udaletatik klima-aldaketa-aren kontra egiten

Europako ekimen bati segituz, besteak beste, berotegi efektuko gasen isurketak murrizteko lanean ari dira

SAKANA

Nafarroako 104 herri bat egin dute aurten foru exekutiboak koordinatutako Klima eta Energiaren Alkatetza Hitzarmenarekin. Tartean dira Sakanako guztiak, hamabostak; joan den urtean hitzarmena sinatu zuten. Nafarroako Alkateen Itunaren helburua da klima-aldaketa-aren ondorioetara egokitzeko udalerrien erresilientzia hobetzea. Udalek bi urteko epearen barruan, Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana aurkeztu beharko dute.

Sakanako Garapen Agentziak antolatuta, itunaren Sakanako jarraipen bilera ilbeltzaren 21ean egin zen. Udal ordezkariak Klima-aldaketa-arako Nafarroako egokitze proiektuaren barne udalerrri mailan egin den klimaren analisia, eta horrekiko kalteberatasun eta arriskuen azterlana ezagutu zuten eta, ondoren, informazioa alkateen itunaren metodologian ezarri zuten.

Alkateen Itunaren barruan udalen egitekoen artean daude: isuriaren inbentarioa egin eta balioztatzea, ekintza planean sartzeko egokitzapen eta mitigazio proposamenak biltzea, Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana egin eta ekintzak lehenestea eta jardunaldi publiko bat egitea. Lursareak aurrera eramango duen isuriaren inbentarioan hondakinek sortutakoak ez dira kontutan hartuko. Horrela, Sakanako Mankomunitateak hondakinen kudeaketarako egindako apustuari aitortza egi-

ten dio (atez atekoa, konpost planta, eta abar). Gainera, Sakanako Plan Estrategiakoaren birtatez hori aztertuko da 2020an baita ondoren, plangintzan, hondakinen kudeaketa neurriak zehaztu eta aurrera eramateko helburuarekin.

Udalerrien kalteberatasun eta arriskuen analisia egiteko bi oinarri dituzte itunean: klimaren analisiaren udalerrri mailako ondorioak eta udalen karakterizazio klimatikorako fitxak. Horietan oinarrituta Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana onduko dute udalek. Planak bere baitan hartu beharko ditu: isurketen murrizketa, klima-aldaketa-ara egokitzapena eta energia-pobrezia.

Ondorioak

Bileran klimaren aldakortasunaren analisiaren ondorio orokorrak aurkeztu zituzten: tenperaturen goranzko joera (minimo zein maximoak), urteko izozte egunen gutxitzea, gau tropikal eta egun beroen kopuruaren areagotzea, bero-boladen magnitude eta iraupena handitzea, urteko prezipitazioen banaketa aldakor eta konplexuagoa, euri intentsuko egun kopurua areagotzea (>20mm), udako lehorteen areagotzea eta tenperatura zein prezipitazioekin loturiko muturreko fenomenoaren areagotzea. Horiek kontuan izanik udalerrien arriskuen, mehatxuen eta kalteberatasunaren analisia egingen da, horiek eragin ditzaketen ondorioak zehazteko.



Lantaldea bilduta. CEDERNA-GARALUR

Garalurren banda zabaleko lantaldea

Sareak hedatzea bulkatzeko esperientziak eta ezagutzak partekatu ditu, besteak beste

SAKANA

Sakanako Garapen Agentzia kide duen Cederna-Garalurren Banda Zabaleko Lantaldearen lehen bilera hilaren 14an egin zen. Garalurrek lantalde berri horri honako helburuak jarri dizkio: toki-erakundearen bitartez, Nafarroako Mendialdeko banda zabalaren eta mugikorraren benetako estaldura-egoera ezagutzea; banda zabalaren hedapen-motek buruzko zalantzak argitzea; administrazio-izapideak egitea; tokiko erakundeendako kostuak eta, batez ere, Mendialdean udalen ekimenez banda zabalaren inguruan garatu diren hedapen esperientziak eta proiektuak partekatzea; tokiko hedapen-proiektuak finantzatzeko alternatibak bilatzea eta ekintza bateratuko politika bat ezartzea goi-mailako erakundeei begira, besteak beste Nafarroako Gobernuari begira.

Aurreneko bileran banda zabaleko estaldura eskaintzeko dauden hedapen-motak azaldu ziren; Nafarroako Gobernuak Banda Zabalerako Plan Zuzentzailearen barruan egindako jarduerak laburbildu ziren; eta toki-erakundeek adierazitako telefonia finkoko, mugikorreko eta Internetarako sarbideko konexio-arazoak partekatu ziren.

Ekain biribilgune berria

Sakanako Autobian (A-10), Irurtzunerako norabidean, Etxarrengo irteera hartzen dutenek trafikoa bideratzeko borobil berri batekin topo egingen dute irteeraren goiko partera iristean. Gauza bera gertatuko zaie NA 2410 errepidea erabiliz Etxarreneratz joaten diren gidariei. Borobil hori Etxarrengo industrialde berrirako sarbideko trafikoa arautzeko eraiki dute.

Uharte Arakilgo frontoia, atzera ere, zabalik

Larrabieta pilotalekua behar bezala zabaltzeko auzolanera hots egin zuen Uharte Arakilgo Udalak otsailaren 15ean. Harmaileak eta kantxa garbitu zituzten uhartearrek eta erabilgarri utzi zuten kirol azpiegitura. Noveleta eraikuntza enpresako langileek aldagela gaineko estalpea konpondu dute, kanalizazioa hobetuz, irteerak legedira ego-

kitzeko izuaren kontrako atea jarri dituzte eta frontoia kolore urdinez margotu dute. Aurretik berde iluna zen eta kolektiboekin kontsultatu ondoren, udalak kolorea aldatzea erabaki zuen. Lan horiek guztiak 57.000 euroko aurrekontua dute eta haiek pagatzeko udalak Toki Azpiegitura Planaren dirulaguntza jaso du. Teiladurako plakak lotzen dituzten gomazko juntak eguzkiarekin erre egin dira eta handik ura sartzen da. Lan horiek egitea besterik ez da falta.

www.kattuka.com
Haur eskola

Haurren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen proiektua

Mugimenduaren garapena, helduarekin harremana eta jolas librea gure ardatza

Aurrematrikula Martxoaren 16etik 27ra
Ate irekiak Martxoaren 10ean 16:30tan

info@kattuka.com • 948 567 009

Gipuzkoan jasotako arroparen legez kanpoko isurketek segitu dute

Aralur enpresa zenaren pabiloi barruan birziklatzeko emandako makina bat tona arropa pilatu dira irailetik. Kanpoko aldean 2012an Gipuzkoatik ekarritako materia organiko metak daude. Eroritako pabiloia segurtasun arazoa ere bada

SAKANA

Atorrek, pantaloiak, jertseak, berokiak, oheko arropa, mota guztietako oinetakoak... Horiek daude Aralur enpresa zenaren pabiloi zahar batetan botata. Kamioikadak. Olatz Irizar Martinez alkateak esan digunez, "zeinek ekarri duen, zergatik ekarri duen eta arduradunak bilatu behar dira. Ikerketa mar txan dago. Behin arduraduna zein den dakigunean erantzukizunak eskatu beharko dizkiogu bai udalak bai gobernua".

Ziordiarrek aurreneko arropa deskargaz iraila erdialdera jabetu ziren eta udala jakinaren gainean jarri zuten. Irizarrek azaldu digunez, Foruzaingoari eman zioten, "pabiloian legez kanpoko isurketa egiten ari zirela salatu genuen. Toki horretan ez dago inolako baimenik inolako isurketarik egiteko". Arropa botatzen harrapatu arte ezin zela ezer egin jakinarazi zieten foruzainek. "Erantzunak haserretu gintuen. Ez dugu baliabiderik han 24 orduko zaintza egiteko. Baina kasualitatez, egun batean, batek kamioia ikusi zuen. Gu abisatu eta guk gaztigua Foruzaingoari pasa genion". Etxegarateko portura iritsi baino lehen garraiolaria eta kamioia identifikatzea lortu zuten. Legez kanpoko isurketatik salatu zuten. Ingurumen Departamentuaren eskutan dago txostena.

Iraila erdialdean hasi ziren kamioikaden joan-etorriak ez du etenik izan. Ziordiarrek kamioi bat ikusten zuten aldiro udala jakinaren gainean jartzen zuten. Eta udalak Foruzaingoa eta Nafarroako Gobernua. "Gure udalak dituen bitartekoen arabera kudeaketarekin hasi ginen". Herriarren gaztiguak jasotzen zizuten bakoitzean Foruzaingoa-



Hegoaldeko gobernua elkarlanean ari dira arroparen jatorria zein den jakiteko. GURELUR

rekin eta Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri zen Ziordiko Udala. "Ikerketa aurrea doa, gestio lanak egiten ari gara". Erantzun hori jasotzen zuen udalak eta hala jakinarazten zien ziordiarrei. Egoerak akaberarik ez zuela ikusita, eta egoerarekin nazkatuta zegoen bizilagun batek, Gurelurrengana jotzea erabaki zuen. Haien salaketak hedabideetan ikusgarritasuna eman dio arazoari.

Enpresa

Ziordiko Udala enpresarekin harremanetan jarri zen eta gertatutakoa "logistika akatsa" izan zela azaldu zieten. Akatsa irailetik errepikatu egin da ordea. Horregatik, udalak enpresari 15 egun eman zizkion botatuko arropak jasotzeko duela hilabete. Ez du halakorik egin.

Gurelurreko Toño Munillak Berria egunkariari jakinarazi dionez, haiek Ziorditik Astigarragaraino kamioi bat segitu zuten. Gurelurrek eta Berriak zabaldu dutenez, Ekotrade enpresara iritsi zen kamioia. Haren web orrian azaltzen denez, eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta arriskutsuak ez diren hondakin asko kudeatzeko irtenbide integrala eskaintzen du.

Berriak jakinarazi duenez, Moyua eraikuntza enpresa da Ekotraderen akziodun nagusia. Eta zabaldu duenez, enpresak Ziordian jazotakoa "gertaera puntual" bat izan zela adierazi du, gaineratuz, enpresarekin lotura zuzena ez duten profesionalak egiten dituztela garraio lanak. Berriak jaso duenez, "Ekotrader ez du garraiorako ibilgailu propioirik. Garraio zerbitzuak enpresatik kanpoko profesionali kontratatzen zaizkie, eta haiek garraiatzen dituzte hondakinak". Horregatik, enpresak gertatutakoarekin loturarik izatea ukatu du, "ez zuzenean, ez zeharka". Berriak zabaldukoaren arabera, aipatu enpresak, gertaera "erabat puntuala" izan dela gaineratu du, eta "dagokien agintariekin konpontzeko bidean" dagoela.

Berriari Moyua enpresako arduradunek baieztatu diote euren arropa sorta bat Ziordiko pabiloian bota zutela. Enpresa horretatik Berriari adierazi diote hara eraman izatea "huts egite" baten ondorio izan zela. Arropa jasotzen duten elkarteek "gehiago erabiltzerik ez dauka-

tenean" Vianako hondakindegira eramaten dutela azaldu diote Berriari. Kamioilaria nahastu zela ikusi zutenean, gertatutakoaren berri eman zion enpresak Nafarroako Gobernuari. Baina enpresak Berriari kamioikada bakarria eraman izana aitortu dio.

Gurelur

Taldeak Nafarroako eta Gipuzkoako hainbat erakundetan salaketak aurkeztu ditu. Munillak adierazi duenez, "gipuzkoarrek dagoeneko erabiltzen ez duten arropa birziklatzearen aldeko apustua egin dute. Baina herriarrek berrerabiltzeko ematen duten arropa guztia modu lizunean eta legez kanpo isurtzen ari da Gipuzkoako enpresa bat, dirudienez zerbitzu horren esleipenduna, isurketa tamalgarri horiek enpresa horretako kamioiek egiten baitituzte".

Munillaren iritziz "legez kanpoko kudeaketa horrekin, aipatutako enpresa onura handiak lortzen ari da, herriarrek ematen duten arropa berrerabiltzen ariko balira bezala kobratzen ari baita. Jokabide mafioso horiek Italian gertatzen dira, non zaborraren kudeaketatik ordaintzen ari diren, mundu guztiak dakienean hondakin horiek Ziordian isurtzen ari direnak bezala bukatzen dutela". Halako gertaerek herriarren artean hondakinak "benetan birziklatzen diren" zalantza sortzen dutela nabarmen du. Ibarretik kanpo ekarritako arropa dela nabarmendu nahi izan du Martinezek. "Sakanan hondakinen kudeaketan gauzak ongi egiten ari gara eta justu horrelako isurketak hemen egitea..."

Nafarroako Gobernuak "be-rehala ekin behar dio hondakin horiek kentzeari, eta ingurumen-eraso horren arduradunek izan ditzaketen administrazio- eta lege-erantzukizunak gauzatu behar ditu". Gaineratu duenez, pabiloia "hondakinak isurtzeko erabiltzen ari dira ere, eta hondakinak bertan behera utzitako enpresan sortzen ziren hondakinekin estalita daude.

UDALAK ARROPAREN ISURKETA IKERTZEA ETA ARDURADUNARI ERANTZUKIZUNAK ESKATU NAHI DIZKIO



Aralur enpresa eta hondakin organikoko metak 2012 urtean.

Kanpoko hondakinak

Arroparena ikusgarri bihurtu den arazo bat da. Baina Aralur zenaren inguruan arazo gehiago daude. Irizarrek gogorarazi digunez, "aurretik ere bazeuden beste hondakin batzuk. Gure kudeaketa ez da bakarrik arropagatik izan, biengatik baizik. Aukera aprobetxatu nahi dugu lur eremu zabal hori guztia behingoz garbitu dezatela eskatzeko". 2012ra jo behar da beste hondakin horien jatorriaren arrastoaren berri izateko. Aralur enpresa orduan zabalik zegoen eta lorategietarako lurra ekoizten zuen.

Alkateak gogorarazi digunez, "2012an Nafarroako Gobernutik baimena lortu zuen hondakinen kudeatzailea izateko. 2012an bertan, hilabete gutxitara, bai udala bai Nafarroako Gobernua jabetu ziren ez zela hondakinen kudeaketa egoki bat egiten ari eta orduan, 2012an, enpresaren kontra zigor-espeditenteak ireki ziren". Hortik gutxira enpresak porrot egin zuen eta hartzekodunen konkurtsoan sartu zen. "Horrek zer esan nahi du? Hori bihurtzen dela inorena eta guztiena. Ez dago jaberik". Hartzekodunen konkurtsoan sartzean konkurtso-administratzailea izendatu zuten. "Baina benetako mintzakiderik ez dago ez guretako, ez Gurelurrendako, ez Nafarroako Gobernuarendako, ez Foruzaingoarendako, ez inorendako". Kexu da alkatea. "Uzte-egoera horretan gertatzen da arroparena".

Lantegiaren hegoaldean eta mendebaldean materia organiko meta handiak daude pilatuta. 5.000 metro karratu inguruko azalera hartzen dute gutxi gorabehera. Toki batzuetan lau metroko altuera dute. Gipuzkoako atez ateko bilketarekin jasotako eta guztiz konpost bihurtu gabea zegoen materia organikoa tratatzeko ekartzen hasi zen Aralur enpresa 2012ko udaberri hasieran. Orduan ziordiarrek usainagatik kexatu ziren. Udalak Foruzaingoan salaketa jarri zuen eta, ondorioz, foruzainek ikuskapen-akta jasotzeko enpresa bisitatu zuten. Gaia Nafarroako Parlamentura ere iritsi zen. Irizarrek azaldu digunez, "porrot egin zuen enpresak eta han utzi zuen pilatutako zabor guztia. Esan bezala, zabor hori ez zuten esan bezala sekula kudeatu".

Ziordiko alkateak azaldu digunez, hondakin horien kontura, Ziordiko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarriketak badaude aurreko legegintzalditik, eta segida duena. Irizarrek gogorarazi digunez, 2018ko garilean foru administrazioak eta Sakanako Mankomunitateak hitzarmena egin zuten eta 7.000 metro kubiko hondakin Arbizuko hondakindegira eraman zituen, haren zati baten itxieran erabiltzeko. "Gelditzen denarekin zer gertatuko den oraindik ez dakigu. Egun hauetan nahikoa hitz politikak entzuten ari gara".

Ziordiko Udalak Nafarroako Gobernuari hondakin horiek jasotzeko plana eskatu dio nork, noiz eta nola zehaztuko dituen. "Hondakinak zortzi urte daramatzate bertan, isuriak daude, ez oso urruti ibaia dago... Hondakinak hortik kanpo lehenbailehen ikusi nahi ditugu".

Segurtasuna

Lantegia erortzen ari da. Eta edozeinendako sarbidea du. Aralur enpresa martxan zela lantegia pabiloi berriarekin handitu zuen. Ziordiko Udalak hirigintza arloan egindako hainbat eskaera ez zituen bete enpresak eta udalak epaitegira jo zuen. 2013 akaberan auzitegiak arrazoia eman zion eta pabiloia legez kanpoko zela ebatzi zuen. Legezatzeko araudira egokitu behar zuela zioen epaiak.

Porrotaren ondoren, 2016ko neguan izandako elurte batek pabiloi berriaren teilatu erdia hondoratu zuen. 2017ko otsailaren 13ko haizeteek pabiloi hartako xafiak



Aralurreko pabiloietako baten teilatua erorita dago.

Iparraldeko Autobiaraino (A-1) eraman zituen eta Foruzaingoak kamioiendako trafikoa itxi behar izan zuen. "Horren berri ere Foruzaingoan behin eta berriro

eman genuen. Baina inorena ez den gauza bat eta inork ez du horren ardura hartzen". Hegan egiten zuten plakak dagoeneko desagertu dira.

ZERBITZU BERRIA



Borda para llevar, Borda etxean.

*Etxera eraman
Borda jatetxearen
bereko zaporea
erosotasun osoz
zureekin gozatzeko*



Deitu eta ospatu gertaera berezi hori etxean, gure sukaldeko platerekin.

Gozatu Borda jatebiko gastronomiaz zure egun berezietan: familia-afariak, bazkariak elkartean, ospakizun bereziak edo erlaxatzeko asteburu bat. **Eraman gure sukaldaritzaren kalitatea eta zaporea nahi duzun lekura, eta erosotasuna irabazi eta denbora aurreztuko duzu.** Berotu minutu gutxi batzuk Borda Etxean prestatutako platerak eta gozatu ezazu, arrakasta ziurtatua duzu eta. On egin!

 **948 46 05 45**

Eskariak gutxienez **hiru egun aurretik** egin beharko dira telefonoz.

Eskaerak egiteko ordutegia:
 10:00etatik 13:00ra / 17:00etatik 20:00tara
 Bordan Jatetxean platerak jasotzeko ordutegia:
 10:00etatik 13:00ra / 17:00etatik 20:00tara

Bisitatu gure webgunea Borda eramateko. Borda etxean gure **aukera berria ezagutzeko**, bertan, xehetasun guztien berri emango dizugu.

www.bordajatetxea.com

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 6

M8 ETXEBERRI Martxoak 8.
Pili Mikeoren
hitzaldia.Arakilgo Udalak antolatuta.
17:00etan, elkartean.ARBIZU Gazte Asanblada.
18:00etan, Argi Bidean.**M8** ALTSASU Gazte
agenda. Martxoak 8.
Influen(zer)?18:30ean, Intxostiapunta gazte
gunean.**M8** IRURTZUN Martxoak 8.
Emakumeari buruzko
XXVII jardunaldiak.Fotos, hormonas y lextin
antzezlaren emanaldia. Kultur
kontseiluak antolatuta.
20:30ean, kultur etxean.OLAIZTI Irakurle taldea:
Santiago Lorenzo idazlearen **Las
asquerorsas** liburuari buruz hitz
egingo dute.
21:00etan, liburutegian.ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.ALTSASU Altsasukoak aske
kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

LARUNBATA 7

ARBIZU Mus txapelketa.
17:00etan, Argi Bidean.**M8** IRURTZUN Martxoak 8.
Emakumeari buruzko
XXVII jardunaldiak.Genero problematikaren
gaindipenerako zenbait apunte.Ondoren, afaria eta Lorena
Arangoaren ikuskizuna. IAGAk
antolatuta.
18:00etan, kultur etxean.**M8** ALTSASU Martxoak 8.
Gazte agenda.
Pankarta morea.18:30ean, Intxostiapunta gazte
gunean.**M8** OLAIZTI Martxoak 8.
Hitzaldia:Zergatik hitz egiten dugu
genero-berdintasunaz? Zalantzak
eta kontzeptuak argitzen.
18:30ean, gaztetxokoan.**M8** ARRUAZU Martxoak 8.
Helduendako ipuin
saioa:80 amandre Dorleta Kortazar
Alkoekin.
19:00etan, udaletxean.LAKUNTZA Kontzertua:
100T08 taldearen kontzertua.
19:30ean, kultur etxean.

IGANDEA 8

Ikus Martxoak 8-ko agenda guztia 3. orrian

M8 ETXARRI ARANATZ
Martxoak 8.
Haurrendako etafamiendako txoko lila.
Udalak antolatuta.
11:30etik 14:30era,
frontoian.**M8** OLAIZTI Martxoak 8.
Bazkaria.Ondoren, Ainhoa legez
kanporen kontzertua.
15:00etan, jubilatuen egoitzan.IRURTZUN Antzezlana
euskaraz:
Etzerik txikiena. Yarleku teatro
konpainia.
17:00etan, kultur etxean.**M8** ARBIZU Martxoak 8.
Antzezlana:Erradikalak ginen.
Bilgune Feministak antolatuta.
18:00etan, udaletxean.ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 9

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta
Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 11

M8 IRURTZUN Martxoak 8.
Zinemara ateraldia.
18:00etan, plazan.URDIAIN Ipuin kontaketa:
Xaxardi eta Ni neu galtzeta Joana
Ziganda eta Iker Uribe egileekin.
18:30ean, liburutegian.ARBIZU Bideo emanaldia.
19:00etan, Argi Bidean.**M8** ALTSASU Martxoak 8.
Joana Maiz komikiaren
aurkezpena. YurreUgarte eta Joseba Larratxe egileekin.
19:00etan, liburutegian.LAKUNTZA Euskaraldia Sakanan.
Herri batzordeak koordinatu eta
Sakanako lehentasunak adosteko bilera.
19:30ean, Sakanako
Mankomunitatearen egoitzan.

OSTEGUNA 12

ALTSASU 0-3 plataformaren
mobilizazioak.
Ratioak jaitsi, soldatak igo.
18:00etan, udaletxearen parean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

Viking Open Canyon
dokumentala. Xabier
Mendikoarekin eta espedizioko
zenbait lagunekin
Ostirala 6: 19:00.Adú
Ostirala 6: 22:00.Adú
Igandea 8: 19:30.Mujeres del siglo XXI zineforum
Igandea 8: 19:40.

OLATZAGUTIA

KULTUR ETXEA

M8 Martxoak 8. Cholitas
dokumentala
Igandea 8: 19:00.IRURTZUN Irurtzungo
pintura tailerraren Estilo
desberdinetatik ibilaldi bat
erakusketa.Martxoaren 2tik 31ra. Pikuxar
euskal txokoan eta Tahonan.

TEA EN LA AZOTEA

ALTSASU Tea en la azotea artistaren **El sueño de una noche de
verano** trapuzko panpinen erakusketa.Martxoaren 4tik 27ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara,
larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan
19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

ZORION AGURRAK

Oihan
Urte askuen eta besarkadak Oihan hi launen partes!
Boltio, Luis, hi ta beste geñakuek etxeratu artio eztek
maitasunik ez elkartasunik faltako. Eutsi! Hi launek

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Bach loreak eta autotezagutza: Martxoak 17, 24 eta 31. Ordua 10:00 - 12:00. Antolatzen du: ASI, Arreta eta Orientazio psikologikorako Zentroa eta Estetika Gixane. Informazioa eta izen ematea 686 203 508 tfnora.

Enpresa kudeaketaz Cederna-Garalur elkar-teak doako bi ikastaro antolatu ditu: "Antolatu zure paperak Ogasunarekiko betebeharrak betetzeko", martxoaren 24an eta "Nola burutu nire izapideak Ogasunarekin linean ziurtagiri digitala erabiliz" ikastaroa da eta martxoaren 31n. Ikastaroak 09:30etik 13:30era izanen dira, Arbizuko industrialean dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan. Informazioarako eta izena emateko: 619 328 264 edo sakana.admon@cederna.es.

Talde dinamikak: Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako ikastaroa martxoaren 14an izanen da, 09:00etatik 19:00etara, Intxostia-punta gazte gunean. Plaza libreak daude. Izen ematea gazte gunean edo gazteria@altsasu.net e-postaren bidez.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburutan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tnora.

LAN ESKAINTZA

Cederna-Garalur elkar-teak egin du deialdia: Piriniorako turismo dinamizatzailea: Eskatzen da: turismo arloko prestakuntza, euskara jakitea (B2), eta gida-baimena izatea (B1). Baloratuko da: komunikazio, sare sozial edo turismoarekin loturiko prestakuntza, eta frantsesa eta ingelesa jakitea (B2). Eskaintzen da: lanaldi osoko kontratua. Dokumentazioa info@cederna.eu helbidera bidali eta mezuaren izenburuan jarri "Pirinioko turismo dinamizatzailea", 2020eko martxoaren 9an, 14:00ak baino lehen. Argibide gehiagotarako: www.cederna.eu/eus webgunen edo 948 20 66 97 telefono-zenbakia.

HIGIEZINAK

ERRENTAN EMAN

Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatzen prest dugu. Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554.

Satrutegiko kontzejuko etxearen alokairua enkante pulikoan atera da: Lizitazio prezioa: 350 euro/hilabete. Proposamenak aurkezteko epea: martxoak 11, asteazkena, Satrustegiko Kontzejuan.

LEHIAKETAK

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 13. lehiaketa: Lanak aurkezteko epea 2020ko apirilaren 28an amaituko da Miranda de Argako Tude-lana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo euskararen-lagunak@gmail helbidean. Oinarriak http://euskararenlagunak.wordpress.com helbidean.

Baiona Iruñea Maiatzaldiak: Maiatz aldirikariak aipatu jardunaldietara testuak bidaltzeko epea zabaldu du, apirilaren 19a artekoa da. Aurtengo Maiatzaldiaren lelo nagusia "Bizimaren koloreak" (Euskal Literaturan) da. Prosaz: 2700 karaktere espazioekin gehienez. Poesiaz: 42 lerro gehienez. Maiatzek jasotako testuen zati aukeratuak argazki muntaketa bat egingen du Maiatzaldiaren egunetan proiektatzeko, bai Baionan, bai Iruñean ere. Testu osoak udazkeneko Maiatz aldirikarian argitaratu litezke.

12. elkar ilustrazio eta lpuin lehiaketa martxoan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tnora deituta.

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

GALDUTAKOAK/

OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Betaurreko graduatu urdin batzuk aurkitu ditut Etxarri Aranazko Arizten ibilbidean. Belexe irratian hartu edo deitu 948 567 074 tnora 9:00etatik 12:00etara.

OHARRAK

Arbizuko Mus txapelketa: Bihar, martxoak 7, larunbata, Argi Bidea Elkartean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Izena ematea egunean bertan 16:00etatik 16:30ra. Bikote bakoitzak 10 euro.

Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekide Txartela oparitzen ari die. Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpekide Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juven-tudnavarra.es/eu/hasiera web gunearen bidez egin dezake eskaera.

Olatzagutiko irakurketa taldea: Santiago Lorenzoren "Los asquerosos" liburua hizketatzeko elkartuko da gaur, martxoaren 6an, 21:00etan liburutegian.

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarterako baka-rrik dauden adingabe atzeritarrek astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatur egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra
VIII. urteurrena



Ez dago hitzik deskribatzeko zenbat botatzen zaitugun faltan. Eguneko segundo bakoitzean gurekin zaude, gure oroimenean. Eta beti izanen da horrela.

Maite zaitugu.

Ama, aita, Iker eta Erkuden

ESKELA



Anastasio Razkin Iriarte

Gogoan zaitugu

Sakanako hiltegiako kideak

JAIOTZAK

- **Arai Jauregi Cuevas**, otsailaren 19an Irurtzunen
- **Kepa Gartzandia Reyes**, otsailaren 23an Lakuntzan
- **Inhar Erdozia Pazos**, otsailaren 24an Lakuntzan

EZKONTZAK

- **Mitxel Zenarruzabeitia Unamuno eta Saioa Lakuntza Txueka**, otsailaren 26an Arbizun
- **Maitane Vilches Maestre eta Luis Maria Gallardo de Ara**, martxoaren 1ean Irurtzunen


HERIOTZAK

- **Anastasio Razkin Iriarte**, otsailaren 28an Arbizun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 6




Igandea, 8



Larunbata, 7



Astelehena, 9



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Espainiako Kopa, Osasuna Magnaren begi puntuan

ARETO FUTBOLA Talde irurtzundarrak Barça izango du aurkari gaur, ostirala, Espainiako Kopako final laurdenetan (19:00, Gol Television). Espainiako Kopan aritzen den 15. aldia da aurtengoa. Talde berdea oso motibatua eta gogotsu dago

Atzo hasi eta igandera bitartean jokatu da 31. Areto Futboleko Espainiako Kopa, Malagan. Aurtengoarekin, Osasuna Magna Xotak 15. aldiz jokatu du Espainiako Kopa, 1998 urtean lehen mailara igo zenetik 21 urtetan 15 aldiz, baina talde berdeak ez du lortu preziazatutako Kopa jasotzea. Lehen itzulian lehen 8 postuetan sailkatuta dauden taldeek lortzen dute Koparako sailkatzea, aurtan Barça, Movistar Inter, El Pozo Murcia, Viña Albali Valdepeñas, Levante, Palma Futsal, Jaen Paraiso Interior eta Osasuna Magna Xota, eta, hortaz, talde irurtzundarrak lortutakoa ez da makala. Aurrekontuaren aldetik talde xumea da Osasuna Magna, eta ia urtero talde ahaltsuenekin sailkatuta egotea ez da edonolakoa. Aurtan Koparako oso ilusionatuta dago Imanol Arregiren taldea, oso gogotsu.

Espainiako Kopan lehenik eta behin final laurdenak jokatu dira, ondoren finalerdiak, eta, azkenik, igandeko final handia. Atzo Jaen-Viña Albali Valdepeñas eta Movistar Inter-Palma Futsal final laurdenak jokatu ziren, eta gaur, ostirala, Levantek El Pozo Murcia izango du aurkari eta Osasuna Magna Xota Barçaren kontra ariko da (19:00, Gol Te-



Osasuna Magna jokalariek Koparako entrenatzen, atzo, Malagan. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

levision). Barça talde ahaltsua da, arerio oso gogorra, baina talde irurtzundarra hazi egiten da talde handien aurrean. Gogoratu behar da ostiralean El Pozo Murcia talde garrantzitsuari 4 eta 3 irabaztetik datorrela Osasuna Magna Xota kopara, animoak gainezka.

Barçaren kontra, "beldurrik gabe"

Osasuna Magna Roberto Martil kapitain irurtzundarrak Guaixeri egindako elkarriketan aitortu zuenez, "txapelketa ede-

rrena" da Kopa, eta taldea "ilusio handiz" dago Barçaren kontrako gaurko partidarako. "Sekulako giroa egoten da Kopan. Barça egokitu zaigu, talde indartsuenetakoa, baina ilusio handia dugu, ez litzateke irabazten diegun lehen aldia izan-

"ILUSIO HANDIA DUGU; GAUZAK ONGI EGINEZ GERO, BARÇA IRABAZ DEZAKEGU" DIO MARTILEK

go. Barça tokatzen bazaizu badakizu guztia eman behar duzula eta beldurrik gabe ateratzen zara, jakinda gauzak ongi eginez gero irabazi ahal dugula, beti modu positiboan" aipatu du kapitainak, eta partida "oso lehia-tua" dela aurreikusten du. "Gol gutxi jasotzea" eta "gure kartak ahalik eta egokien erabiltzea" izango dira final laurdenetan aurrera egiteko gakoak. Halaber, zale berdeen babesa eskertzen du kapitainak. "Gure jendearekin hazi egiten gara. Komen eta babes handia ematen digute zaleek; eta horrek asko laguntzen du" gaineratu du.

Imanol Arregik bere plantila guztia du prest gaurko partida garrantzitsurako, Diego Mancuso izan ezik. Ostiralean zuntz-haustura izan zuen Mancusok. Rafa Usinek kolpe bat hartu zuen baina Koparako prest egongo da. Eta lau irurtzundarrak ere –Roberto Martil, Dani Saldis, Asier Llamas eta Jon Cerviño– Malagan daude, duten guztia emateko prest.

Osasuna Magna Xotak, final laurdenetan Barça irabaziz gero, Levante eta El Pozo Murcia taldeen arteko irabazlea izango du aurkari larunbatean jokatu den finalerdian (19:00, Gol Television). Eta finalerdietako irabazlea igandean jokatu den final handirako sailkatuko da (18:30, Gol Television), eta beste adarreko finalista izango du aurkari.

Mini Kopa

Lehen mailako taldeen Kopa jokatzeko den bitartean, Kopara sailkatu diren talde guztien harrobietako haurren mailako taldeek Mini Kopa jokatu dute, tartean haurren mailako Xota talde irurtzundarrak.

FUTBOL PREFERENTEA

20. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Doneztebe – Lagun Artea	4-1
Itaroa Huarde B – Etxarri Aranatz	4-3
SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Beti Casedano	36
3 Lagun Artea	35
16. Etxarri Aranatz	18
HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:30 Etxarri – Ilunberri (<i>San Donato</i>)	
IGANDEAN	
16:00 Lagun Artea – Aibares (<i>Lakuntza</i>)	

Jardunaldi kaxkarra

Doneztebe aurreratu zen, eta Laguneko kapitaina aldageletara bidali zuen arbitroak. Horrek guztiz baldintzatu zuen partida. Azkenean, 4 eta 1 galduta itzuli ziren lakuntzarrek. Bestalde, Uharteko Iruñean Itaroa aurreratu zen, baina Iñigori esker Etxarri berdindu egin zuen. 3 gol sartu zituen Uhartek, eta Iñigok sartutako bi golekin Etxarri gerturatu zen, baina ezin izan zuen berdindu.

ERREGIONALA GIZONAK

20. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu – Liceo Monjardin	2-2
SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	50
9 Altsasu	20
HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:30 Salesianos – Altsasu (<i>Salesianos</i>)	

Altsasuk Salesianos du aurkari

Altsasuk bina berdindu zuen Liceo Monjardinen kontra, eta bihar, larunbata, 24 punturekin sailkapenean 7. postuan dagoen Salesianosaren kontra jokatu du. 4 puntuko aldea dutenez, Altsasurendako garrantzitsua litzateke irabaztea.

ERREGIONALA EMAKUM.

22. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu – Universidad de Navarra	2-2
SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	56
7 Altsasu	37
HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
17:00 Zarramónza – Altsasu (<i>Arroniz</i>)	

Altsasuk berdindu

Eider Vicentek 2. minuturako Altsasu aurreratu zuen, baina Iruñekoek berdindu zuten. Bigarrena sartu zuen June Alzelaik, baina OPUS-ekoek berdindu egin zuten.

Rubio-Jauregi txapeldun

PILOTA Asteburuan Nafarroako Kirol Jolasetako Nafarroako Pilota Txapelketako lehen faseko finalak jokatu ziren Irurtzun eta Iruñean, Tartean, benjaminen 2. mailako finalean, Irurtzun D taldeko Gurmino eta Sarasibar Irurtzun C taldeko Rubioren eta Iraurgiren kontra aritu ziren eta Rubio eta Iraurgi izan ziren txapeldunak, 3 eta 18 irabazi eta gero.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINAK. 7. JARDUNALDIA	
IGANDEAN URDIAINEN	
10:00 Altsasu C – Aralar Mendi	
11:00 Etxarri Aranatz – Altsasu C	
12:00 Sutegei – Betelu	
13:00 Urdiain – Altsasu B	

Sakanako Futbol Topaketak bueltan

Inauterietako atsedenaldiaren ondoren, bueltan dira Sakanako Futbol Topaketak. Igandean benjaminen 7. jardunaldia jokatu da Urdiainen, goizeko 10:00etatik aurrera. Guztira 4 partida daude jokoan.

Hasteko, bi biko onenen arteko partida

PILOTA Ezkurdia-Martija eta Jaka-Zabaleta elkarren kontra ariko dira bihar Labriten (17:30, ETB1). Txapelketa zerotik hasiko dela nabarmendu zuten bi bikoek material aukeraketan, eta faboritoaren presioa gainetik kentzen saiatu ziren Jaka eta Zabaleta

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako 14 jardunaldiak eta aurreko asteburuko play-offak jokatu eta gero, aste honetan hasiko da, Jaka-Zabaleta, Ezkurdia-Martija, Olaizola II.a-Urrutikoetxea eta Laso-Albisu bikoteek jokatu duten finalerdietako ligaxka.

Asteburuan finalerdietako lehen jardunaldia dago jokoan eta goitik hasiko da txapelketa, ligaxkako bi bikote onenen arteko partidarekin: Jaka eta Zabaleta Ezkurdia eta Martijaren kontra. Tentsio handiko partida, zalantzarik gabe. Sakandarren arteko partida bihar jokatu da, larunbata, leporaino beteta egongo den Iruñeko Labriten (17:30, ETB1). Material aukeraketa asteazkenean egin zuten eta konforme azaldu ziren, baina Ezkurdiak aipatu zuen jokoan hasita pilotak eraldatu egiten direla. "Txapelketa guztian berdina esaten ari naiz, tanto pare bat egiten direnean ikusten duzu materialak ez duela horrenbeste aguantatzen; ikusi behar larunbatean berdina gertatzen ote den" azaldu zuen.

Ezkurdia eta Martija, piloteoaren ekimena hartzera Ezkurdiak eta Martijak Jaka eta Zabaleta jo zituzten faborito eta hasierako ligaxkako liderren gainean jarri zuten presioa. "Zabaleta une oso onean dago eta Jakak duen guztiari ateratzen dio etekina" azaldu zuen Ezkurdiak. Baina arbitzuarrak gainerratu zuen bera eta Martija "une onean" iritsi direla finalerdietara eta Labriteko partida "aprobetxatu beharra" dutela. "Lehen tantotik partidaren sartu behar dugu, eta piloteoaren ekimena edo inizatiba kendu behar diegu, Jose urduritzen saiatu. Partidaren erritmoa jartzea gakoa izango da. Jose bost eta erdian dominatzen badu, oso zaila izango dugu. Jokoan sartzen eta



Lau pilotariak, asteazkeneko aukeraketan. ASPE

PILOTEOAREN EKIMENA HARTZEA, AKATS GUTXI EGITEA ETA ASKO AZTATZEA DIRA GAKOAK

eurak mugiarazten saiatuko gara" azaldu zuen aurrelari arbitzuarrak. Iritzi berdinekoa zen Martija. "Zabaleta sekulako txapelketa egiten ari da eta Jaka eustea asko kosta egiten da, baina aurretik lortu izan dugu. Orain zerotik hasiko gara, eta ongi hastea izango da gakoa, lehen tantoak egitea, konfiantza hartzeko".

Jakak eta Zabaletak "zerotik" hasten direla nabarmendu zuten Jaka eta Zabaleta txapelketako faborito nagusiak dira, hasierako ligaxkako 14 jardunaldietatik 12 irabazi eta gero, baina presioa gainetik kentzen saiatu ziren. "Orain arte egindakoak ez du ezertarako balio. Aimarri eta Urrutikoetxeari begiratzea besterik ez dago, finalerdietan biko guztiekin kontatu behar da. Orain Aimar eta Urruti inoiz baino

arriskutsuagoak dira" nabarmendu zuen Jakak. Jakaren ustez Ezkurdia eta Martija "oso bikote orekatua" dira, txapelketan gelditzen direnetatik "bikoterik langileena". "Ez dute tantorik oparitzen, baina gu gogotsu gaude, eta ea orain arte bezala gehitzen jarraitzen dugun" aipatu zuen Lizartzakoak. Bere ustez, gakoa "okerrak ez egitea eta asko asmatzea" izanen da.

Zabaletak argi utzi nahi izan zuen txapelketa zerotik hasten dela. Hasierako ligaxkan, bi biko sakandarren arteko lehen partidaren Jaka eta Zabaleta gailendu ziren, 20 eta 22, eta bigarrenean Ezkurdia eta Martija, 22 eta 19. "Hasierako ligaxkako partidaren erreferentziak ez du balio; hor genuen errore-marjina handiagoa zen" nabarmendu zuen Etxarren-goak.

Labritekoa partida lehiatu eta gogorra izango da. Bi bikoak primeran iritsi dira hitzordua garrantzitsu horretara, sentsazio ezin hobeeekin, eta goi mailako partida espero da.

Lehen jardunaldiko beste partida igandean jokatu dute Olaizola-Urrutik eta Laso-Albisu, Bizkaian (17:00, ETB1).

Irurtzunek EKko Nazionalerako finalean egon nahi du

PILOTA Igandean Oberena izango du aurkari EHko Kluben Arteko Nazionalerako finalerdietan, Zumarragan

Joan den urtean Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionala irabazi zuen Irurtzunek eta aurten ere txapela jantzi nahi du talde sakandarrak. Final laurdenetan Tolosako Aurrera kluba bidean utzi zuen Irurtzun klubak, eta finalerdietan Paz Ziganda irabaztetik datorren Oberena kluba izanen du aurkari Sakanako taldeak.

Bi talde nafarrek igandean, goizeko 11:00etatik aurrera jokatu dute finalerdia, Zumarragako Beloki frontoian. Kate-drak azaldu duenez, "goi mailako pilota ikusteko" aukera izango da finalean. Lau eta erdian Alberto Ongay satrustegiarrak ordezkatu du Irurtzun eta Canabalek Oberena, eta bien arteko lehia gogorra izango dela aurreikusten da. Buruz buru, Retegi Bi izanen da Irurtzuno ordezkaria eta Irurita Oberenakoa. Pilota profesionala utzi eta gero, txikitant trebatu zen Irurtzun klubera bueltatzea erabaki du Retegik eta ikusmin handia piztu du. Azkenik, binaka Olaetxea-Bergera arituko dira Irurtzun klubean eta Mata-Aldabe Oberean, eta partida gogor eta borrokatua espero da.



Amaia Jaka, eskuinean. EMAKUME MASTER CUP

Amaia Jaka finalerdietan

Asteburuan Binakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketako pilota goxuko final laurdenak jokatu ziren Pasai Antxon, sekulako giroa zela. Amaia Jaka ihabardarrak Eneritz Arrietarekin osatu zuen bikoa eta Uxue Larrea eta Lierni Gartziaarena izan zituzten aurkari. Agintea hartu, eta 18 eta 1 irabazi zuten Arrietak eta Jakak. Martxoaren 14an jokatu da finalerdia, Elgoibarren, eta Arrietak eta Jakak Nagore eta Leire Galeano izanen dituzte aurkari.

TXIRINBULO UDAL HAUR ESKOLA

2018, 2019 eta 2020. urteetan jaioetako haurrentzat
7, 6 eta 4 ordutako egonaldiak
Jantoki zerbitzuarekin
Instalakuntza berriak
Ordaintzeko tarifa (Errenta aitortpenaren arabera)

PREMATRIKULA Martxoaren 16tik 27ra
09:30-15:30

948-564422 | txirinbulohaureskola@altsasu.net
Altzania Kalea 24 ALTSASU
Jarrai gaitzazu Facebook-en

ZATOZ ESKOLA BERRIA EZAGUTZERA!
ATE IREKIAK
Martxoak 11
17:00-18:00

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

Gorka Izagirre Insaustiren (Astana) azken astea gorabeheratsua izan da oso. Aurreko astean Emirri Batuetako UAE Tourrean lehiatzen ari zen Ziordian bizi den ormaiztegiarra, eta antolakuntzak proba bertan behera uztea erabaki zuen, koronabirus kasu batzuk tarteko, eta txirrindularitza taldeek gaixotasunaren kontrolak pasa behar izan zituzten. Igandean Paris-Nizan aritzekoa zen Gorka, baina atzo Astanak azaldu zuen martxoaren 20ra arte taldeak ez duela inolako lasterketetan parte hartuko, prebentzio moduan.

Txirrindularitzara ere iritsi da koronabirusa. Emirri Batuetako UAE Tourra bertan behera utzi eta gero, kontrolak pasatu behar izan dituzue? Nola bizi izan duzue alarma egoera hau?

Hasteko, harridura handiarekin eta duda askorekin. Txirrindularitzan mundutik barna asko ibiltzen gara, gurera ere heldu egin da koronabirusa eta pasatu egin behar. Antolakuntzak UAE Tourra bertan behera uztea erabaki zuenean talde guztiek kontrol prozesu bat pasa behar izan genuen. Abu Dabiko hotelean egon gara tropel osoa geldirik, barnean sartuta. Gure kasuan, Astanan, negatiboak izan ziren emaitzak eta handik irten ahal izan ginen, baina oraindik ere zenbait talde han daude, eta ematen du luzerako doala. Astelehenean itzuli nintzen Ziordira.

Egun horiek entrenatu gabe pasatuko zenituzten, ez?

Bai, baina itzuli bat amaitu berrikan geunden, eta deskantsatu genuen. Guretzat hiru egun izan ziren orotara, ez asko. Egun batean hoteleko gim nasiora joan ginen; handik mugitzeko aukera ere bagenuen, une eta ordu jakin batzuetan, eta lan pixka bat egin genuen, ezer handirik ez.

Gertatutakoak hurrengo probetan ere eragina izango duela uste duzu?

Igandean hasiko den Paris-Nizan aritzekoa naiz (elkarrizketa asteartean egin genuen eta Astanak atzo hartu zuen prebentzioagatik bertan ez aritzeko erabakia). Txirrindularitza munduan ere galdera ikur asko daude oraindik, bertako federazio handienak, UCIk, ez baitu oraindik erabakirik hartu, eta ez dakigu datozen probak egingen diren ala ez. Entzuten da beharbada Emirrietan izan garen txirrindulariek eta teknikariek ezin izango du-

"Harridura handiz eta duda askorekin bizi dugu egoera"

GORKA IZAGIRRE INSAUSTI ASTANA TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Emirri Batuetako UAE Tourrean zela, koronabirusarengatik bertan behera geratu zen proba. Paris-Nizan ezingo da aritu, Astanak prebentzioagatik hala erabakita



Izagirre Paris-Nizan aritzekoa zen, baina Astanak parte ez hartzea erabaki du. ASTANA

"KORONABIRUSAREN KONTROLAK PASA BEHAR IZAN GENITUEN ETA GURE KASUAN NEGATIBOAK IZAN ZIREN"

gula hurrengo 14 egunetan lasterketetara joan... Albisteak oso gorabeheratsuak dira eta nahasmen handia dago.

Ezjakintasun giro honetan dena aztoratuta egongo da, ez?

Oso-oso aztoratuta. Eta maila pertsonalean ere. Pentsa, familia dugu, orain etxean gaude baina han egon gara... eta horri nola aurre egin eta noiz arte inork ez digu ezer esaten. Guretzako egun hauek ez dira batere errazak izaten ari; saiatzen ari gara ahal den normaltasun handiaren egoten, baina prebentzio neurriekin ibiliz.

Zure ustez hartzen ari diren neurriak gehiegizkoak dira?

Gaixotasun bat kontrolatzeko modua prebentzioa da. Pixka bat esajeratzen ari diren? Ni ez naiz aditua hori esateko, baina Estatuak neurri hauek hartzen ari dira, Munduko Osasun Erakunde eta beste oso arduratuak daude, eta askotan ez da kosta gauzak prebenitzea. Eskatu dituztenak -eskuak garbitu, gaixo zauden sentiazioa izanez gero 112ra hots egin eta beste- ez zaizkit gehiegizkoak iruditzen.

Euskadi Fundazioak Euskaltekin hitzarmena sinatu du.

Ez dakigu Euskaltel zenbaterainoko indarrarekin sartuko den, zein aurrekonturekin; eta horrek esanahi handia dauka gerora begira. Baina albiste oso ona da. **Euskaltel-Euskadin (2010-2013), Movistarren (2014-2017) eta Bahrain Meridan (2018) egon zinen eta egun Astanan (2019-2020) zaude. Boteprontoan, talde bakoitzaren zein une aukeratu zenuke?**

Euskaltelen, eta nire ziborrari begiratzat, nire lehenengo garai-

pena (2010eko Luxenburgoko Tourreko 5. etapa). Oso berezia izan zen, hunkigarria. Movistarren garaipen handiak egin genituen; Alejandro Valverde eta Nairo Quintana ziren liderrak. Akaso Nairorekin Italiako Giroa irabazi genuenean, horrekin geratuko nintzateke, horrenbesteko zeresana eman zuen Stelvio-ko etapa barne. Egun hunkigarria izan zen, eta erabakigarria gero Nairoren garaipen horretan. Bahrain Merida, esango nuke mundura ireki ginen taldea izan zela. Ikusi genuen ez dela beldurrik izan behar mundura zabalatzeko. Gauza asko eman zigun taldeak, eta bertan eman nuen maila azpimarratu nahiko nuke; askatasun erabatekoa izan nuen, Tourra kenduta. Eta Astanan iaz izan genuen urte ederra nabarmendu nahi nuke, garaipen askorekin, bai pertsonalak, baita neronek parte hartu izandakoak.

Iaz Astanak 37 garaipen lortu zituen, UCI Rankingean 5.a izan zen. Printzipioz Astanak Fulgsang, Miguel Angel Lopez eta Alexey Lutsenko zehaztu ditu taldeburu, eta zu eta Jon zure anaia luxuzko gregarioak. Zein dira zure helburuak?

Lehenengo helburuetako bat Paris-Niza dut (ezingo da aritu), eta hurrengo helburu pertsonalak Belgikako Ardeetako Klasikoak dira. Aurten aldaketa hori egingen dut, eta gogotsu nago, lasterketa berezi eta polit horietan neure burua zertan dagoen ikusteko. Euskalteko garaian klasiko hauetan ibilitakoa naiz, baina gaztea nintzen, esperientzia aldetik hutsala. Une honetan nagoen bezala, pauso hori eman nahi dut. Eta itzuli handiei begira, Italiako Giroan aritzekoa naiz.

Giroan Fulgsang laguntzea tokatuko zaizu. Ongi konpontzen zarete?

Bai. Teiden izan gara taldearekin, eta berarekin tokatu zait logelan bi astetan. Gizon normala eta lasaia da, oso profesionala.

Ziklo-krolean denboraldi bikaina egin duzu. Errepidera ongi heltzeko balio dizu?

Ziklo-krosa gustuko dudalako egiten dut, eta bigarrenik uzten didatelako. Euskaltekin eta Movistarrekin, debekatua izan nuen ziklo-krolean aritzea. Ez dakit gero errepiderako ona izango den, baina txarra behintzat badakit ez dela. Eta aurten suertatu da lasterketa batzuk irabazi ditudala eta hirugarrena izan naizela Espainiako Txapelketan. **Osoa: www.guaixe.eus**



Igor Arrieta eta Iker Mintegi, Mañeruko igoeran. JESUS BARADO

Igor Arrietak garaipenarekin eman dio hasiera denboraldiari

TXIRRINDULARITZA Igor Arrieta bakarrik iritsi zen Villatuertako helmugara, atzean Iker Mintegi zuela

Juniorren mailako errepideko denboraldia igandean hasi zen, Villatuertan. XLI. San Veremundo Zirkuitua zegoen jokoan, 70 kilometroko lasterketa gorabeheratsua, eta txirrindulari sakan-darrak jaun eta jabe izan ziren. Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta ikusgarri aritu zen, eta Mañeruko igoeran erasoia jo eta gero, uharte arakildarra bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:45:12), atzetik zetorren Quesos Albeniz-Burunda taldeko Iker Mintegi Altsasuarrari minutu pasa ateraz (1:46:29). Ikus-kizun ederra eskaini zuten bi sakan-darrek. Gainontzeko sakan-darrei dagokienez, Martzel Etxeberria (Sakana G.) 4. sartu zen, Jon Erdozia (Sakana G.) 6., Sergio Lopez (Q.Albeniz) 19.), Hugo Aznar (Q.Albeniz) 28., Mikel Olaetxea (Sakana G.) 40., Mikel Lizasoain (Sakana G.) 46. eta Unai Aznar (Q.Albeniz) 48.

Lasterketa irabazteaz gain mendiko sailkapenean onena izan zen Igor Arrieta, eta bere taldea, Sakana Group-Aralar, izan zen talderik onena.

5 sakan-dar afizionatuetan

Asteburuan afizionatuen mailako euskal egutegia mustu zen ere. Aurten amateur mailako 38 lasterketa jokatu dira gurean, horietatik 2 Sakanan: uztailaren 16an Euskaldun Torneorako baliagarria den Iturmendiko lasterketa; eta irailaren 15ean jokatu den Altsasuko lasterketa, Euskaldun Torneorako puntugarria den azken proba.

Euskaldun Torneorako 20 probek puntuatuko dute, eta Lehendakari Txapelketarako (23 urtez azpikoak) 18 probek. Aurtengo nobedadea da bi torneoetan txirrindularien eta taldeko kotxeen arteko komunikazioa baimenduko dela, pinganillo bidezkoa.

Zumaia eta Ereño

Larunbatean Zumaiaiko lasterketak Euskaldun Tornea mustu zuen (112,5 km). Euripean, zazpikote bat iritsi zen batera eta esprintean Baque taldeko Jon Barrenetxea gailendu zen (2:41:20). Lizartekin debutatu duen Jon Gil lakuntzarra 50. postuan sartu zen, eta Goierriko TB-Laboral Kutxarekin bere bigarren denboraldiari ekin dion Ailetz Lasa ziordiarra 87. postuan. Bestalde, igandean XVII. Ereñoko Udala Sari Nagusia jokatu zen, Lehendakari Txapelketa ireki zuena (105 km). Grupo Eulen taldeko Joseba Lopez bakarrik iritsi zen helmugara (2:44:55). Ailetz Lasak 27. postuan gurutzatu zuen helmuga.

Afizionatuen mailako tropelean aurten 25 txirrindulari nafar daude, horietatik 5 sakan-dar. Josu Etxeberria iturmendiarrak Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakan-darrean jarraitzen du, Iker Cerviño irurtzundarrak Telco'm Clima-Oses taldean segitzen du, Ailetz Lasa ziordiarrek Goierriko TB-Laboral Kutxan jarraitzen du, Jon Gil lakuntzarrak Lizarte taldean debutatuko du eta Andoni Ocaña urdiaindarrak Ciclismo Riojano-Lasarg taldean.

55,70 metrorekin Europako Kopara

DISKO JAURTIKETA June Kintana martxoaren 21ean eta 22an Portugalen jokatu diren Europako Jaurtiketen Kopan arituko da, Castellonen 55,70 metroko disko jaurtiketa egin eta gero. Asteburuan Motrilen ariko da, Espainiako Jaurtiketa Luzeen Txapelketan

Urte hasieran zuen helburua lortu du June Kintana Larraza disko jaurtitzaile bakaikuarra: martxoaren 21ean eta 22an Leirian (Portugal) jokatu den Europako Jaurtiketen Kopan aritzea. Horretarako gutxieneko 55 metroko jaurtiketa egin beharra zuen atleta sakandarrak eta larunbatean Espainiako Atletismo Federazioak antolatutako Castellongo kontrolean lortu zuen Junek, kilo bat pisatzen duen diskoa 55,70 metrora jaurti baitzuen, urte honetako Espainiako emakumezkoen disko jaurtiketa onena. 6 metro atera zizkion Mar Morant jaurtitzaileari (49,10 m). “Europako Koparako gutxienekoa lortu dut, 55,70 metro jaurti nituen eta oso kontentu nago” adierazi digu.

June aitortu duenez, halako markak egitea kosta egiten da. “Ez da erraza, baina azkenaldian entrenamendu onak egiten nabilen eta lortu dut” adierazi du. Asteburuan Espainiako Jaurti-



June Kintana Larraza, aurreko jaurtiketa batean. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

keta Luzeen Espainiako Txapelketa jokatu du Granadan, Motrilen, eta hori da bere hurrengo erronka. Bertan ahalik eta lan onena egin nahi du “ondoren Europako Kopa prestatzen hasiko naiz” gaineratu du.

Juneren markarik onena 56,30 metrokoa da (2017, Europako 23 urtez azpiko txapelketa, Polonia). Aurten bide onean doa, dagoneko 55,70 metro lortu baititu. Ea bakaikuarrarendako marka gehiago datozen.

Mikel Astiz hirugarrena IV. Lizarrako Duatloian

DUATLOIA Sakandarrek maila bikaina eman zuten. Arbizuko eta Altsasuko Duatloietan izena eman daiteke

Igandean IV. Lizarrako Duatloia jokatu zen. Irteera hartu zutenek 5 km korrika, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrika egin behar izan zituzten. Sakanako 6 kirolarik hartu zuten parte eta bikain ibili ziren; horren erakusle, 6 sakan-darretako 5 lehen 20 postuetan sailkatu ziren.

Guztira 128 duatleta inguruk osatu zuten proba eta Amanda-rrri taldeko Aitor Regillaga izan zen azkarrena (1:02:37). Aurten Donibane taldean dabilen Mikel Astiz ihabardarra aurrean ibili zen eta hirugarrena iritsi zen

helmugara (1:03:40). Sakana Triatloi Taldeko kideak ere ongi aritu ziren. Sergio Garcia 12. postuan sartu zen (1:06:17), Iñaki Alvaro 14. postuan (1:07:00), Juan Luis Maiza 16. postuan (1:07:43), Juan Carlos Gomez 17. postuan (1:07:44) eta Hiruki Triatloi Taldeko Jose Ignacio Mikeo 46. postuan (1:13:13).

Emakumezkoetan Donibane taldeko Uxua Idiazabal izan zen txapelduna (1:18:14) eta Sakana Triatloi Taldeko Silvia Perez 10. postuan iritsi zen Lizarrako helmugara (1:29:46).

Kategoria txikiak

Proba nagusiaz aparte, kategoria txikikoek ere Lizarrako Duatloian parte hartzeko aukera izan zuten. Probak Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak izan ziren. Sakana Triatloi Taldeko kideei dagokienez, benjaminen mailan Sakana Triatloi Taldeko Oihan Andueza 3. sailkatu zen, Aratz Mendoza 8. eta Unax Mazkiaran 10., kimuetan Mikel Arrizabalaga 5. postuan sartu zen.

Arbizu eta Altsasu ate joka

Hilabete honetan bi duatloi proba izanen dira gurean: martxoaren 21ean Arbizuko Duatloia, eta martxoaren 28an Altsasuko Duatloia. Bi lasterketarako izena ematea zabalik dago Nafarroako Triatloi Federazioan (www.navarratriatlon.com).

Lilatoiaren ondotik, Sakanako Lilasterketa

ATLETISMOA Sakanako 14 emakumek hartu zuten parte Donostiako 31. Lilatoian. Hurrengo igandean, martxoaren 15ean, Sakanako Lilasterketa jokatu da Altsasun, eta bertan parte hartzera animatu dute antolatzaileek, Altsasuko Udalak eta Mank-ek

Donostiako Lilatoiak errekor guztiak apurtu zituen eta igandean 6.565 emakumek hartu zuten parte emakumezkoen berdintasuna aldarrikatzen duen lasterketan. Aurtengoa 31. edizioa zen, “Norantza bakarra du bideak” lelopean jokatu zena. Izaro Rubio ordiziarra izan zen Donostiako kale nagusienetan barna jokatuak proba herrikoia zituen 5 kilometroak osatzen azkarrena (18:23), eta tartean hainbat sakandar aritu ziren. Azkarrena Amaia Aristu olaztiarra izan zen, helmugan 62. postuan sartu zena (22:42)

Lasterketa hasi baino lehen, zumba beroketa saioa izan zen, eta 10:25ean ibilbidea handbikean osatu zutenak abiatu ziren eta 10:30ean, herri lasterketa korrika osatu zuten emakumeak. Ohi bezala, sekulako giroa egon zen Donostiako kaleetan, txarangak eta batukadak are gehiago berotu zutena. Festa behar bezala bukatzeko, trikitilariak girotu-



Lilasterketan aritzeko prest. ARTXIBOA

tako Lilapoteoa izan zen Alde Zaharrean.

Sakanako VII. Lilasterketa martxoaren 15ean

Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak Martxoak 8

ekitaldien barruan antolatuta, martxoaren 15ean jokatu da Sakanako VII. Lilasterketa edo emakumezkoen lasterketa. Proba 12:00etan abiatuko da Altsasuko Foru plazatik, eta korrika, patinetan, bizikletan edo paseoa emanez osatu daiteke ibilbidea. Antolatzaileek bertan parte hartzeko deia egin diete emakumeei.

Sakandarrak

1. Izaro Rubio (Ordizia)	18:23
62. Amaia Aristu (Olaz)	22:42
257. Gurutze Ubeda (Etx)	27:07
941. Ainara Aizpurua (Olaz)	31:39
1750. N. Mendizabal (Arru)	34:26
1981. Maite Agirre (Urd)	35:02
1984. I. Aiestaran (Urd)	35:02
1985. Ana Agirre (Urd)	35:02
4746. J. Erauskin (Etx)	41:38
4956. Amets Flores (Arb)	42:13
4960. Intza Insausti (Arb)	42:14
5119. Nekane Garcia (Arb)	42:43
5125. Ariane Insausti (Arb)	42:45
5127. Naiara Estanga (Arb)	42:45
5129. Miren Pereda (Arb)	42:46

Nafarroako Herri Kirol Jokoak Berriozarren hasiko dira etzi

HERRI KIROLAK Txapelketan Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletako taldeak lehiatuko dira

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol Institutuarekin batera antolatutako Nafarroako Herri Kirol Jokoak igandean hasiko dira, Berriozarren. Urteik urtera arrakasta gehiago du txapelketak eta geroztako talde gehiago animatzen da bertan parte hartzera.

Aurtengo txapelketan guztira lau jardunaldi jokatu dira: martxoaren 8an Berriozarren, martxoaren 15ean Etxarri Aranzatzen, martxoaren 22an Antsoainen eta martxoaren 29an Altsasun. Talde onenak apirila-

ren 5ean Igantzin jokatu diren final handirako sailkatuko dira.

Herri kirol proba konbinatua eta sokatira

Batetik herri kirol proba konbinatuak jokatu dira –koxkolak, txingak, zakua, korrika eta trontza–, kimuen mailan (11-12 urte), kasu honetan trontzarik gabe, haurren mailan (13-14 urte) eta kadete mailan (15 eta 16 urte). Sokatiran haurren mailan (480 kg) eta kadeteen mailan (540 kg) jokatu da txapelketa. Taldeak mistoak izaten dira.



lazio finala Altsasun jokatu zen.



Triku Trailera izena ematea gaur zabalduko dute. Irudian, iazko irteera. SAGRI

Gure probak, Zirkuiturako eta Rankingerako erabakigarriak

MENDI LASTERKETAK Sakanako mendi lasterketa probak txapelketetarako puntuagarriak izango dira

Hastear dago mendi lasterketen aurtengo denboraldia, eta Sakanan antolatuko diren lasterketak, atzera ere, inguruko mendi lasterketen txapelketetarako puntuagarriak izango dira.

Euskal Herriko Mendi Federazioak 2020ko Mendi Lasterketen Rankinean 25 mendi lasterketa hautatu ditu, tartean Sakanan jokatu diren lau: maiatzaren 31n Arbizuko kanpinean jokatu den Tritoiena (21 km), ekainaren 14an jokatu den Lakuntza-Aralar Mendi lasterketa (25 km), ekainaren 28an Etxarri Aranazko kanpinean antolatu den Trikutrail (21 km) eta irailaren 20an prestatu zen Uharte Arakil-Berriain Km Bertikala. Aipatu lau proba hauek, aldi berean, Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarriak izango dira, urriaren 4an Etxarri Aranzatzen jokatu den XLV. Mendira Joan Etorria Lasterketarekin (10 km). Guztira 11 probek puntuatuko dute Nafarroako Zirkuituan.

Horretaz gain, Tritoiena lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketa izango da, eta Uharte Arakil-Berriain Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izanen da, bakarka eta taldeka.

Bargagain igoera, berria

Aipatutako lasterketaz kanpo, Sakanan beste proba batzuk izanen dira, askoz ere herritarragoak direnak. Esaterako, Sutegi taldeak iraileko San Migel festetan Olatzagutia-Urba mendi lasterke-

ta antolatuko duela aurreikusten da, Irurtzunen Trinitate Igoera antolatuko dute Trinitate festetan, Lakuntzan Zabalarrek Guardetxe Igoera prestatuko du abuztuko festen bezperan, eta aurtur lasterketa berri bat izango dugu, Altsasuko Kukuerreka elkarteak maiatzaren 23an 16:00etan antolatuko duen I. Bargagain Igo eta Jaitsi (12 km). Dagoeneko izena ematea zabalik dago www.kirolprobak.com web gunean.

Trikutraileko izena ematea gaur zabalduko da

Trikutrail taldeak adierazi digutenez, gaur, martxoak 6, zabalduko dute Etxarri Aranzatzen ekainaren 28an jokatu den Trikutrail lasterketarako izena ematea (www.kronoak.com). Bertan aritzeko asmoa dutenei izena ematea lehenbailehen egiteko gomendioa luzatu die antolakuntzak.

Erniora buelta eta sagardotegia Sakanako Mendizaleekin

Urtero mendi ibilbidea eta sagardotegia antolatzen du Sakanako Mendizaleak taldeak eta aurtur martxoaren 15erako jarri du hitzordua. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik, eta mendizaleek Gipuzkoara joko dute, Alkizatik abiatuta mendi buelta ederra egitera, eta tartean Ernio mendia igoko dute. Ondoren, sagardotegira joango dira, eguna bikain borobilduz. Izena ematea zabalik dago ohiko tokietan edo 639 117 631 telefonora hots eginez.

"Idazleen antologia egin beharra zegoen"

ASIER BARANDIARAN FILOLOGOA

Nafarroako euskal idazleen lanak biltzen dituen antologiaren hirugarren liburukia koordinatu du Asier Barandiaranek, Arbizon bizi den filologoak

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Nafarroako euskal idazleen lanak biltzen dituen antologiaren hirugarren liburukia argitaratu du Nafarroako Gobernuak. Hirugarren aldi honetan 1975 eta 2000 bitarteko urteak aztertutako eta 19 egileren lanak bildu dituzte, tartean Juanjo Olsagarre arbi-zuarrarenak. Arbizon bizi den Asier Barandiaran filologoa antologiaren koordinatzailea izan da. **Zergatik egin antologia bat?**

Besteak beste, egin beharra zegoelako. Ez zegoen Nafarroako euskal idazleen edo Nafarroako euskal literaturaren antologiarik eginda. Nafarroako Gobernuak babestuta egin zen duela zenbait urte egile nafarren antologia orokor bat, baina euskaraz idazten zutenen berri oso eskasa zen, oso azalekoa eta txikia. Ez ziren ia euskal idazleak agertzen. Euskaraz egiteak baditu zenbait ondorio, eta ondorioetako bat da apur bat sistema nagusi baten menpean zaudela, ertzekoa edo periferiakoa bihurtzen zarela. Horrek badauka arrisku bat: ikusezina bihurtzen zarela. Orduan, ikusgarritasuna emateko beharrezkoa zen egile nafarren euskal literaturaren antologia bat. Zorionez duela zenbait urte Bianako Printze erakundeak konturatu ziren egin beharra



Asier Barandiaran. UTZITAKOA

zegoela eta horrela hasi zen proiektua, eta horrela aritu gara. Dagoeneko hiru liburuki ateratzen dira eta laugarrena prestatzen ari gara. Laugarrenak gaur egun arte eramango gaitu; 2000. urte-tik gaur egun arte.

Beraz, laugarren liburukia prestatzen ari zarete.

Ari gara, bai. Dagoeneko kolaboratzaileen talde eder bat osatu dugu. Batzuk aurreko aleetan lagundu dutenak dira, beste batzuk berriak dira. Denetarik dago, baina oso kolaboratzaile kapazak eta onak, finak eta interesagarriak.

Bi hamarkada hauetan, aldaketa asko daudela sumatu duzue?

Egile eta lan guztiak gertuago ditugu. Hori bai. Eta aldaketak egongo dira, bai. Aurreko liburukian hartu genuen 1975tik 2000ra arteko guztia, eta berriarekin alderatuta badira zenbait berezitasun. Horietako bat egile gehiago direla, zorionez, egile askoz gehiago dira. Horrek esan nahi du pixka bat gure azpi sistema literarioa egonkortu dela. Egile nafarrek beharbada lortu dute euren ahotsa kanporatzea. Beste berezitasun bat da emaku-

mezko egileak dezente gehiago direla, aurreko aldietan baino. Horiek berezitasun batzuk baino ez dira, gehiago daude.

Hirugarren liburukiak 1975etik 2000 urteko tartea hartu du. Zer nolako tartea izan zen?

Tarte berezia. Trantsizio deitutako garaiarekin bat egiten du eta trantsizioak bere ezaugarriak izan zituen, eta bere ezaugarri bereziak izan zituen Nafarroan, Euskal Autonomi Erkidegoan ez bezala. Neurri batean nafar egileek egin zuten ahalegina nabarmentzen da, euskal egileek bezala, euskal literaturaren demandari erantzuteko egin zuten lana. Bat-batean, aurreko erregimenean ez bezala, euskara hezkuntza sisteman sartu zen, eratu zen, baita Nafarroako hainbat lekutan ere, ez guztietan. Horrek eskatu zuen hainbat testuren demanda, eta testu horietako batzuk literarioak izan behar zuten. Egile nafarrak horri erantzuten saiatu ziren. Tarte horretan gertatutako hainbat gauzen oihartzuna izaten dira garai horretako istorioak eta narrazioak. Eta egile nafarren ikuspegia beti izan da berezia, originala, beharbada periferia batetik ikusten dituztelako gauzak. Interesgarria izan da. Garai bakoitzak bere gauzak ditu.

Zergatik dira bereziak nafarren testuak?

Badira hainbat egile ikuspegi berezia ematen saiatzen direnak. Entsegugintzan, esaterako. Literaturaren genero bat da eta Nafarroa bereziki oparoa izan da. Entsegugile asko izan dira. Hirukote bat izan da entseguak idatzi dituztenak: Aingeru Espaltza, Santi Leon eta Xabier Zabaltza. Entsegu horietan oso ikuspegi nafarra aurkezten dute. Euskal eta Nafarroako gizartearen

eta kulturen hainbat alor modu literario batean aztertzen dituzte, eta betiere nafartasun batetik. **19 idazleen artean Juanjo Olsagarre dago. Sakandar gehiagorik tarte horretan?**

Gehien bat aurreko aldian zeuden, 1975 urtea baino lehenago argitaratu zituzten euren testuak eta horregatik ez ditugu sartu hirugarren horretan. Badago beste bat laugarren aldian sartuko dela: Castillo Suarezrek bere lehen poesia liburua aurreko aldiaren azkenengo urtea argitaratu zuen, baina bere obra gehiena 2000. urtetik aurrera argitaratu zuenez, bete-betean sartuko da laugarren liburukian.

Olsagarrek beti dio bere belau-naldiak ez duela oihartzun handirik izan. Antologia egiterakoan nabaritu duzue?

Agian arrazoa izango du. Olsagarrenen ekarpena oso interesgarria eta oparoa da. Bere garairako aurreratua izan zen. Bere ostean Nafarroan eta Euskal Herriko beste hainbat lekutan sortu dira talde oso interesgarriak. Bera aitzindaria izan zen literatura mota bat egiten. Batez ere olerkiaren bidetik, olerki berezia eta estilo markatu bat du. Narrazioa ere egin du. Laugarren alean berriro aterako da, 2000. urtetik aurrera zenbait lan potolo argitaratu ditu.

Zer du Arbizuk?

Ez dut azaltzeko gaitasunik, baina zerbait badauka. Gauza batengatik edo bestearengatik hemen bukatu dugu batzuk..

"OLASAGARRE AITZINDARIA IZAN ZEN LITERATURA MOTA BAT EGITEN, AURRERATUA"

Txoooootx!

JUANLUZENEK

SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE

txotx denboraldia zabalik

ODERITZ

948 604 571 | 680 652 183

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 487 317 • 948 682 341 • Gailoni bidea 11 • ALTASU

PORTUKO

Gosatu gurekin!

Altasu: 948 563 822

Lantegia: 948 467 153

Elxarri Aranz: 948 460 988



Eva Azpilikueta aktore altsasuarraren 'Ettxerik txikiena' antzezlanaren zirkuituan dago. UTZITAKOA

Antzoki Sarea ehuntzen hasi da beste urte batez

Nafarroako 28 herriek parte hartzen dute Antzoki Sareak antolatzen duen zirkuituan, tartean Irurtzongo, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko kultur etxeak. Hirugarren edizioa izanen da, eta Nafarroa osoan 52 ikuskizun programatu dira



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

Harri, orri, ar!

Amona ez zait ba etorri laguntza eske!


Bere 19 bilobei oparitzo bat egin nahi die eta 19 **harritxo** (txikiak, oso txikiak) jarri dizkit mahai ganean. Berak margotu ditu eta oso koloretsu gainera. Eta kontraste handiz biloba bakoitzaren izen-abizenen lehen hizkiak idatzi ditu harritxo bakoitzean.

Eta zertan lagundu dezaket nik, bada?

Hantxe jarri dit, harritxo guztien ondoan paper **orri** handi handi handi bat. A0 tamainakoa hain zuzen ere! Bere eskaera da ahalik eta paper gutxiena xahutuz eta tamaina estandarreko paper orriak itzuliz, harritxo bakoitzarentzako poltsatxo bat egin dezadan.

Neurtzeko zinta hartu eta kalkulu batzuk egin ondoren ohartu naiz harritxo

bakoitzeko A8 neurriko paper txiki batekin nahikoa izango dudala. Kontuan izan A0tik A1era basatzeko papera erdibitu egin behar dela eta berriro erdibitu A1etik A2ra pasatzeko. Horrela, erdibitzen jarraituz gero, A8 tamainara irits gaitezkeelarik. Irudian ikusten den bezala:



Beraz, artaziak edo guraizeak hartu eta papera erditik moztan hasi naiz, ahal den neurrian paper ahalik eta handienak utziz.

Ea orain zuek niri laguntzen didazuen. Amonari neurri estandarreko ahalik eta paper orri handienak itzuli nahi badizkiot, neurri bakoitzeko zenbat itzuliko dizkiot 19 harritxoak bildu eta gero?

Gogoratu! <https://guaixe.eus/komunitatea/> EdurneLarraza helbidean aurkituko duzue ekarpen hau eta bertan zuen erantzunak emateko aukera izango duzue. Nola lortu duzue erantzuna? Gainera, astebete barru nire azalpenak emango dizkizuet. (www.bebbras.uk webgunetik ekarria).

SAKANA

Martxoa eta maiatza eta iraila eta urria bitartean Nafarroako Antzoki Sareko hirugarren zirkuitua izanen da Nafarroako 28 herrietan. Guztira, 52 ikuskizunen emanaldiak izanen dira eta haietatik 42 Nafarroako konpainiak sortutakoak dira.

Zirkuituaren helburua antzoki sarearen barruan dauden kultur etxeen eta aretoen ohiko programazioan laguntzea da. Gainera, proposamenek gai sozialak lantzen dituzte eta kontrastatuko kalitatea dute. Nafarroako ekoizpenak sustatzeko lana egiten du zirkuituak; bertako produkzio artistikoa bultzatzea ere bada antzoki sarearen xedea.

Besteak beste, zirkuituaren hirugarren edizioan Yarleku Teatro konpainiaren *Ettxerik txikiena* egonen da. Xixongo arteeszenikoen FETEN 2019ko sarietan antzezlanaren protagonistetako bat den Eva Azpilikueta altsasuarrak aktore onenaren saria irabazi zuen. Etzi, igandea, 17:00etan, Irurtzongo kultur etxean izanen da. Xabier Artieda etxarriarraren *Everybody needs... Heroes!* antzezlan fisikoa ere zirkuituan izanen da.

Nafarroako Gobernuak ere hainbat ikuskizun nabarmendu ditu: *Lloviendo Ranas* Acronica Produccione eta Ados Teatro konpainien koprodukzioa; *Kimera* La Banda-rena, La Caja Flotante konpainiaren *Catastrofe*, Max antzerki sarietarako sailkatua izan zen; *Aita* Laura Laiglesia-rena, Producciones Maestras konpainiaren *Estas en babia* Iruñeko Udaleko Sormen artistikoaren saria irabazi zuena, eta *Bojiganga* Tdiferencia eta Teatro del Cuervo konpainien Asturiasko Oh! sarietan hainbat sari irabazi dituen ikuskizuna dela.

Programazioan prozesu artistikoak garatzeko erresidentzian sortutako ekoizpenak ere egonen dira: *Concavo-Convexo* Lesakako Led Silhouette konpainiarena eta *El equilibrio entre sujetar y soltar* antzezlanaren Becky Siegel eta Kon Mocion espectaculos konpainiekin.

Euskal Herriko ikuskizunak ere ikusi ahaliko dira, esaterako, *Zaldi Urdina* edo *Saioak* dantza garaikidea eta zuzeneko musika uztartzen dituen ikuskizuna. Granadatik *Esencial* etorriko da eta Gaztelatik *Mauthausen*.

Hitzaldi dinamikoa, teoriatik praktikara

Fernando Morillo idazleak solasaldi berezia eman zuen AEKko Itsasi euskaltegian

ALTSASU

"Deitzen nautenean gauza bat eskatzen dut: libre izatea". Fernando Morilloren hitzaldietan ez dago irakaslerik eta ikaslerik, "denak dira ikasle". Beraz, hasieran esertzeko eskatzen die guztiei. Aldiz, ondoren entzuleak aulkietatik jaikiko dira, idazlearen solasaldiak ez direlako nolanahi-koak, izan ere, "esperimentatzea" gustatzen zaio Morillori: "jendearekin, nire buruarekin eta zuekin". Beraz, teoria alde batera utzi, eta "praktika" gustatzen zaio: "dynamikak egingo ditugu, mugituko gara". Euskaltegiko ikasleak eta irakasleak "zer pasatu zait" galderarekin aterako zirela aitortu zuen idazleak.

Morillok azaldu duenez, William Butler Yeats Irlandako poeta "handiak" bizitzaren azken "enigma edo sekretua" ezagutzearekin obsesionaturik zegoen. "Esperi-



Fernando Morillo euskaltegian.

mentu asko egin zituen bere buruarekin", eta azkenean sekretua topatu zuen: pertsona bakoitzaren barruan poema bat dago, "baina ez edozein poema bakoitzak berea du". Morillok "barruko poema" horrekin konektatzea nahi zuen.



Tuterako saioa, zutik, eskuinean, Idoia Granizo altsasuarra. NAF, BERTSOZALE ELKARTEA

Finalean sartzeko bigarren aukera dute sakandarrek gaur

Bardoak 2020ko finalaurrekoaren itzulera saioa jokatu du gaur Sakañak

SAKANA

Tuterako Beterri peñan 40 bat pertsona bildu ziren Ateaberts komeni eta Sakaña taldeen arteko saioa entzuteko. Leitzako taldeak irabazi zuen joaneko saioa. Gaur, ostirala, Atarrabiako Etxebeltza Elkartean itzulera izanen da, eta sakandarrek puntuazioari buelta eman beharko diote finalean egoteko. Asteburuan jokatuako bigarren saioan, Anizen, Malerrekako Bertsonautak taldeak irabazi zuen, Lesakako Arranopola taldearen aurretik.

Leitzako Ateaberts komeni taldeak irabazi zuen Tuterako finalaurrekoaren joaneko saioa, baina sailkapena estu gelditu da. Izan ere, Leitzako taldeak 23 puntu jaso zituen eta sakandarrek 21. Hortaz, gaur Atarrabian jokatu du itzulera saioan erabakiko da finalerako nor sailkatzen den. Sakaña taldean Ekain Alegre, Idoia Granizo eta

Saats Karasatorre aritu ziren bertsoan. Leitzako taldea Aitzol Eizmendi, Ane Intxausti, Joanes Illarregi eta Miel Mari Elozegi Luze bertsolariek osatu zuten.

Anizen jokatu zen finalaurrekoaren joaneko beste saioa eta Malerrekako Bertsonautak eta Lesakako Arranopola taldeak aritu ziren. Malerrekakoek irabazi zuten saioa 26 punturekin eta, beraz, pausu bat eman dute Lizarrako finalean sartzeko. Arranopolak 18 puntu jaso zituen. Martxoaren 14an, Goizuetan, bi taldeak aurrez aurre izanen dira itzulera saioan, eta orduan erabakiko da nor den finalista.

Gaur jakingo da Ateaberts komeni eta Sakaña taldeen artean nor pasako den finalera, Atarrabiako Etxebeltza Elkartean jokatu du saioan. Bihar, larunbata, Tafallan kanporaketarako joaneko saioa izango da Lamixene eta Hego haizea taldeentzat.

Tearen uda-gau bateko ametsa Altsasun

Tea en la azotea artistaren 'Uda-gau bateko ametsa' erakusketa mustu dute lortia kultur gunearen erakusketa aretoan. Oihalekin egindako eskultura txikiekin William Shakespearren obraren interpretazioa egin du artistak

ALTSASU

Tea en la azotea Gabriela Barrio artistaren alter egoa da, eta, aldi berean, Tea oihalezko panpina bat da. Tea mundu fantastiko batean bizi dela azaldu du Barriok, baina, aldi berean, mundu errealean dago. *Uda-gau bateko ametsa* Shakespeare lana ezagunean bi mundu horiek agertzen direla azaldu du artistak: "Alde batetik, errealitate bat dago non artisauak, Atenasko errege-erreginak, maitemindutako bikoteak eta abar agertzen diren. Bestetik, fantasiako mundu bat agertzen da: maitagarriak, iratxoak...". Hortaz, Tea en la azotearen filosofiarekin bat egiten ziola pentsatu zuen. *Tea eta uda-gau bateko ametsa* oihalezko panpinen erakusketa mustu dute Iortia kultur gunean, eta hilaren 27ra arte izanen da erakusketa aretoan.

Literatura, historia eta "horrelako materialak" modu berezian irakasten ditu Barriok. Oihalezko panpinak erabiltzen hasi zen. Gainera, panpinak birziklatutako oihalekin eginak daude, "lortzen ditudan oihalak, ematen dizkidenak... batzuk kalitatezkoak dira, zeta eta abar". *Uda-gau bateko ametsa* erakusketan, aldiz, panpinak baino "birziklatutako oihalekin egindako eskultura txikiak" dira. Izan ere, ez dira



Tea eta uda-gau bateko ametsa erakusketa lortia kultur gunean.

ukituak izateko sortu, baizik eta "ikusteko, begiratzeko, detailetan ohartzeko". Tea "benetako" panpina bakarra dago, baina erakusketa honetan Teatania bihurtzen da, obraren protagonista.

Tea en la azotea Barrioren marka da. Berak egiten dituen gauza guztietan Tea agertzen da. Gaiarretik deitu zioten erakusketa bat egiteko eta Tea antzerkikira joango zela erabaki zuen. Horrela sortu zuen *Uda-gau bateko ametsa* erakusketa: "Gaiarre antzokirako egin nuen. Sarreran eta eskaileretan jarri

nituen panpinak, kaiolak, txoriak, eszena nagusia... Tea antzerkiaz maitemindu zen".

"Nobedade bat dago Iortia kultur guneako erakusketan". Barriok azaldu duenez, erakusketa gela ikusi zuenean "aho zabalik" gelditu zen: "Oso handia zen, zuria, eta nire eskulturak oso txikiak dira". Beraz, erakusketarekin bat egiteko instalazio bat sortu du, "giro berezia" sortzeko. "Oihalekin baso bat sortu dut, eta bertan eszena nagusia azaltzen da". Erakusketa obraren argazkiekin osatzen da.

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

Kale Nagusia 10
(Etxarri Arantz)
948 567 074
irratia@beleixe.eus

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

**C.A. OSASUNA
ESPANYOL**



MARTXOAK 8. IGANDEA
12:00-14:00

(IRRATIKO KONEKIOA 11:40EAN)

**EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ**

euskalerrriarritia

"Zumba dibertigarria da; guztiz harrapatzen zaitu"

Hemendik 9 egunetara IV. Arbizuko Zumbathoi Solidarioa izanen da Arbizon, txakurrek lagundutako terapiak egiten dituen Biak Bat elkartearen aldekoa. Arbizuko zumba monitore Mayra Palopekin zumbaz eta zumbathoiaz aritu gara

Maidier Betelu Ganboa ARBIZU

1 Zer da zumba?

Nire pasioa. Zumba kirol aktibitate bat da, baina zumba klase batek dibertigarria izan behar du, parte-hartzailea... Musikari jarraiki monitoreak gidatutako koreografiak jarraitu behar dira, eta errepikatzearen poderioz, mugimenduak ikasi, eta konturatu gabe, kirola egiten ari zara, ongi pasatzen duzun bitartean. Jende guztia da zumba klase bat jarraitzeko kapaza.

2 Aerobicaren modalitate bat da?

Antzeko gauzak dituzte, koreografiak segiz egiten direlako, baina ezberdinak dira. Zumban aerobiceko mugimendu batzuk egiten dira, baina zumbak gehiago jotzen du dantzara. Zumban aldakak gehiago mugitzen dira.

3 Reggaetoiarekin lotzen da.

Hori mito faltsua da. Zumban reggaetoi dantzatzeko da, baina baita beste erritmo asko ere: salta, merenguea, cumbia, soca, popa, dance, rocka... edozein musika estilok du tokia. Zumba klase polit bat izateko, musika estilo anitzak sartu behar dira. Zenbat eta erritmo ezberdin gehiago, hobe.



Mayra Palop, Arbizuko zumba monitore. UTZITAKOA

4 Noiztik zara zumba monitore?

Hiru urte daramatzat. Hasieran ikaslea nintzen, baina zumbak guztiz harrapatu ninduen eta irakasle izateko formazioa egin nuen. Berehala monitore izateko aukera sortu zitzaidan Altsasun eta Arbizon. Irurtzunen ere lan egin izan dut. Aurten Arbizon ematen ditut klaseak. Helduen taldean 21 ikasle ditut eta txikien klasean 23 ikasle.

5 Zumba momentuko moda da?

Bost urte daramatzat zumbaren munduan eta uste dut ez dela moda kontua; esango nuke gora egiten ari dela. Zumbathoi asko daude, master class asko, lasterketa askotan zumbarekin egiten dira beroketak... loraldian dago.

6 Martxoaren 15ean IV. Zumbathoi Solidarioa antolatu duzue Arbizon, txakurrek lagundutako terapiak egiten dituen Biak Bat elkartearen alde.

Asmoa gurean lan egiten duten ekimen solidarioak laguntzea da, eta aurten txakurrekin lagundutako terapiak egiten dituen Biak Bat elkarteari egin genion proposamena, sekulako lana egiten dutelako (biakbat.eus).

7 Zer antolatu duzue?

Goizeko 10:00etan txikienendako lasterketa eta txokolatada izanen dira, eta Zumbathoia 11:00etan hasiko da. Dantzatuko dutenek 5 euroko sarrera ordainduko dute eta ikusleek 2 eurokoa. Zozketa egingo dugu: Baloreak eta Zetak taldeen kamisetak, Ezkurdiaren kamiseta eta beste.

8 Zazpi monitore egongo zarete.

Ni naiz sakandar bakarra. Ernesto Madrildik dator, Ainara,

Charles eta Elena Gasteiztik, Itziar Iruñetik eta Sali Calahorrratik. Bakoitzak bere estiloa du dantzatzeko, bere koreografia propioak sortzen ditu. Monitore ezberdinak gaudenean, zumbathoia dibertigarriagoa da, ezberdina, anitza. Txikiekin ere bi koreografia egingo ditugu.

9 Musika asko entzun beharko duzue egunean egoteko.

Momentuko kantuak zeintzuk diren jakin behar duzu, txikienei gustuko dituztelako. Niri denetarik gustatzen zait, eta erritmo ezberdinak erabiltzen ditut, rocketik hasita flamenkoraino. Denetarik. Atzera ere egiten dut, lehengo kantuak ere kontuan hartzeko. 60. edo 80. hamarkadetakako kantu bertsionatuek sekulako jokoa ematen dute.

10 Aurreko urtean oso arrakastatsua izan zen Zumbathoia.

Bai, Perthes gaixotasuna duten elkartearen (Asfape) aldekoa izan zen eta sekulako booma izan zen. Txikien lasterketarako 178 dortsal eta zumbathoirako 644 sarrera saldu ziren guztira. Aurten ere Biak Bat elkartearen aldeko Zumbathoi Solidarioa arrakastatsua izatea espero dugu, elkarteak sekulako lana egiten duelako eta merezi duelako.

11 Sakandarrak Zumbathoian aritzera animatuko ditugu?

Bai, helduak, gazteak, haurrak, familiak... guztiak animatu daitezela. Goiz dibertigarri, kirolari eta solidario bat pasako dugu. Zumban inoiz aritu izan ez direnak ere gurekin dantzan aritu daitezke lasai asko. Monitoreen argibideak jarraituz ongi pasatzea da kontua.



... HIRU, BI, BAT

AIRERATU ZURE NEGOZIOA

EDOZER GAUZA BEHAR DUZULA ERE, HURBILDU GUREGANA



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

948 564 275
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu